



GENERO IKUSPEGIA GORPUTZ HEZKUNTZAN ETA KIROLAN

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Eñaut Amundarain

Zuzendaria: Ainara Duque

LABURPENA:

Gizartea hezkuntzaren isla den bezala, hezkuntza, edo hobeto esanda gure ikasgela, gizartearen eraginpean dago eta horregatik, kaleetan ikusten ditugun jarrera eta ohitura asko gure ikastetxeetan agertzen dira. Gaur egun, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako genero-estereotipo tradizionalak bere horretan diraute Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleengan. Gorputz Hezkuntzan irakasten diren edukien artean, generoaren kultura-karga handia dakarten jarduerak daude, eta oraindik ere gizonezkoen eta emakumezkoen gorputzaren ikuspegi bitarrari eusten zaio. Gaia honetan bete-betean murgiltzeko, alde batetik, Lehen Hezkuntzako Aldaialde eskolako ikasleentzat inkesta bat prestatu dut; eta beste aldetik, Domusa Teknikako emakume profesional batekin elkarrizketa bat eraman dut aurrera. Bi ikerketa hauek egungo errealitatea islatu dute, izan ere, oraindik genero desberdintasunak jarraitzen dutela ikusi da eta tamalez, genero-estereotipo batzuk baieztatu dira. Umeen artean, neskek jarduera fisiko gutxiago egiten dute eta erreferenteen galera aipagarria da; alderdi honetan, Gorputz Hezkuntzak eta orokorrean eskolak duen erantzukizuna nabarmendu beharrekoa da, erreferenteak eskolara eramanez edota neskeengan eragin positiboa izan dezaken ikuspegi holistikoa aurrera eramanez laguntza handia izan baitaiteke. Bestalde, emakume profesionalek jasotzen duten laguntza oraindik ere eskaka dela ikusi da, baina alderdi profesionalean joera nahiko positiboa dela ondorioztatu daiteke. Genero-berdintasuna kirolean gertuago dago, baina oraindik lan asko dago egiteko eta egungo gazteak etorkizuna, hortaz emakumeen egoera haien esku dagoela esan daiteke eta guri irakatsi diguten bezala, haiei lehiatzen irakatsi behar diegu.

Hitz gakoak: Genero-berdintasuna, gorputz hezkuntza, genero-estereotipoak, jarduera fisikoa, kirola, kirolari erreferenteak.

RESUMEN:

Así como la sociedad es reflejo de la educación, la educación, o mejor dicho, nuestra clase, está influida por la sociedad y por eso muchas de las actitudes y costumbres que vemos en las calles aparecen en nuestros colegios. En la actualidad, los estereotipos tradicionales de género relacionados con la actividad física y el deporte persisten en el alumnado de Primaria y Secundaria. Entre los contenidos que se imparten en Educación Física se encuentran las actividades que suponen una gran carga cultural del género y se sigue manteniendo una visión binaria del cuerpo masculino y femenino. Para centrarme de lleno en este tema, por un lado, he preparado una encuesta para el alumnado de la escuela Aldaialde de Primaria; y por otro lado, he llevado a cabo una entrevista con una mujer profesional de la Técnica Domusa. Estos dos estudios han reflejado la realidad actual, ya que se ha constatado que

todavía persisten las desigualdades de género y lamentablemente se han confirmado algunos estereotipos de género. Entre los niños, las niñas realizan menos actividad física y la pérdida de referentes es destacable, destacando en este aspecto la responsabilidad de la Educación Física y de la escuela en general, ya que puede ser una gran ayuda llevando a la escuela referentes o llevando adelante una visión holística que puede tener un impacto positivo en las niñas. Por otro lado, se observa que el apoyo que reciben las mujeres profesionales sigue siendo solicitado, pero en el aspecto profesional se puede concluir que la tendencia es bastante positiva. La igualdad de género en el deporte está más cerca, pero todavía queda mucho trabajo por hacer y los jóvenes de hoy en día el futuro, por lo que se puede decir que la situación de las mujeres está en sus manos y como nos han enseñado a nosotras, tenemos que enseñarles a luchar.

Palabras clave: Igualdad de género, educación física, estereotipos de género, ejercicio físico, deporte, referentes deportivos.

ABSTRACT:

Just as society is a reflection of education, education, or rather, our class, is influenced by society and therefore many of the attitudes and customs we see in the streets appear in our schools. At present, traditional gender stereotypes related to physical activity and sport persist in primary and secondary school students. Among the contents taught in Physical Education are activities that are culturally loaded with gender and continue to maintain a binary view of the male and female body. In order to focus fully on this topic, on the one hand, I have prepared a survey for the students of the Aldaialde Primary School; and on the other hand, I have conducted an interview with a professional woman from the Domusa Technique. These two studies have reflected the current reality, as it has been found that gender inequalities still persist and unfortunately some gender stereotypes have been confirmed. Among boys, girls perform less physical activity and the loss of referents is remarkable, highlighting in this aspect the responsibility of Physical Education and the school in general, since it can be a great help bringing referents to school or carrying forward a holistic vision that can have a positive impact on girls. On the other hand, it is observed that the support received by professional women is still in demand, but in the professional aspect it can be concluded that the trend is quite positive. Gender equality in sport is closer, but there is still a lot of work to be done and the young people of today the future, so it can be said that the situation of women is in their hands and as we have been taught, we have to teach them to fight.

Key words: Gender equality, physical education, gender stereotypes, physical exercise, sport, sporting mentor.

AURKIBIDEA

1.SARRERA.....	1
2.JUSTIFIKAZIOA.....	2
3.MARKO TEORIKOA.....	3
3.1 Kontzeptu basikoak.....	3
3.2 Generoa eta kirola historian.....	4
3.3 Generoa eta kirola gaur egun.....	6
3.4 Genero ikuspegia gorputz hezkuntzako klaseetan.....	8
3.5 Genero ikuspegia jarduera fisikoa eta kirol mailan.....	11
3.6 Genero-estereotipoak.....	12
3.7 Estereotipoak gorputz hezkuntza eta jarduera fisikoan.....	14
3.8 Umeen kirolari erreferenteak.....	15
4.HELBURUAK.....	17
5.METODOLOGIA.....	17
5.1 Ikasleen iritzia.....	18
5.2 Kirolari profesionalaren iritzia.....	18
6.EMAITZAK.....	19
6.1 Galdetegia.....	19
6.2 Elkarrizketa.....	22
7.ONDORIOAK.....	25
8.HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	30

9.ERREFERENTZIAK..... 32

8.ERANSKINAK..... 38

1.SARRERA

Identitatea eraikuntza pertsonal eta sozial gisa ulertzen da, genero/sexu sistemaren arauak definitzen dutena, eta interpretazio biologizisten arabera arauak, rolak, balioak, sinesmenak eta jarrerak esleitzen dituen (León Hernández et al., 2022). Gaur egun eskola eta eskola kirolak lehen haurtzarotik jarduten dute identitate sortzaile gisa, gizarteak ezarritako genero ereduak eraiki zabaldu eta ezartzen dituzte.

Guztiok bizi izan dugun gorputz hezkuntzako klase tradizionalak zenbait jarrera, ohitura eta balore bultzatzen dituztela argi dago. Lehiakortasunean oinarritutako jarduerak eta abiadura, indarra eta potentzia bezalako gaitasunak bezalako osagaiak dituzten saioek sarritan gizonaren ideologia supremazista sendotzen laguntzen dute. Bestalde, nolabaiteko dualismoa babesten laguntzen dute, gizonetzako lanerako eta domeinu publikoetarako gauza dela eta emakumea familia eta emozioen kontuetara atxikituz.

Irakasleok nahi gabe bada ere, maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoak erreproduzitzen ditugu, eta gizonen nagusitasuna onartzen eta erreproduzitzen dugu eskola esperientzietatik eraikitzen eta metatzen joan garen jarduera fisikoko eta kirol jardueretako praktiketatik abiatuta (Lleixa Arribas et al., 2019). Ikasleek eredu hauek hartu eta erreproduzitzen dituzte, amaigabea den ziklo bat sortuz, buztanari hozka egiten dion txakurrak bezala. Hau gutxi balitz, genero identitatearekin zerikusia duten gaietan sartzea ekiditen dugu, bai irakasleek eta bai ikasleek akats egiteari beldurra diogulako. Honek eragin zuzena du kirol mailan eta aurki daitezken emakume erreferente galeran.

Hortaz, ikerketa honen helburua, alde batetik genero ikuspegia gorputz hezkuntzan eta kirol mailan bere osotasunean ezagutzea da, hots, lan honen bitartez, batez ere Gorputz Hezkuntzako baina baita kirol mailako genero-ikuspegia landuko da. Horretarako, umeen eta emakume profesionalen egoera ikertuko da; alde batetik 6-9 urte bitarteko umeei inkesta bat eginez eta beste aldetik, saskibaloia jokalariei batekin elkarriketa baten bitartez.

Lanaren lehenengo zatian, marko teorikoa atalean, ikerketa hobeto ulertzeko kontzeptu basikoak, bi generoen egoera kirol mailan eta gorputz hezkuntzan eta genero-estereotipoen bilaketa bibliografiko bat egin da.

Behin oinarrizko ezagutza teoriko bat edukita, ikerketa honen helburuak zehaztuko dira. Ondoren, ikerketa hau gauzatzeko jarraitutako prozesua eta metodologia adieraziko da, non, erabilitako instrumentuak, lagina eta parte hartzaileak zehaztuko diren.

Bestalde, ikerketa hau egin ahal izateko; alde batetik, ikasleei galdetegi bat pasa zaie haien kirol gustuei, erreferenteei eta ezagutzei buruz. Bigarren ikerketarako, saskibaloijokalariai galdetegi bat egin zaio emakume kirolari profesional batek kirolaren munduko genero ikuspegiari buruz duen iritzia ezagutzeko. Hortaz, erantzunak, bata grafiko batzuen bitartez eta bestea transkripzio baten bitartez jaso dira, eta hauek interpretatuz ondorio batzuk atera dira lanaren bukaeran.

Bukatzeko, erabilitako bibliografia eta eranskinak izango ditugu, bertan txostena hobeto ulertzeko lagungarriak aurkituz. Eranskinak atalean, bi ikerketen galderak zehatzak daude eskuragarri.

2.JUSTIFIKAZIOA

Kirol mailan emakumeen presentziak gora egin duela eta Gorputz Hezkuntzan nahiz jarduera fisikoan orokorrean genero-berdintasunera bideratzen ari garela ukaezina da, baina hobekuntzak ez du emaitza justifikatzen. Hobekuntza eman dela argi dago, joera oso positiboa da, baina oraindik ere lan asko egin beharra dago bi generoen artean aurki daitezken desberdintasunak guztiz desagerrarazteko eta behingoz berdintasuna lortu dela ospatzeko.

Ni, Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala, erantzukizun bat dudalakoan nago, ikasleei estali nahi den errealitatea erakutsi behar diet, belaunaldiz belaunaldi genero ikuspegiaren aurrean irakatsi den portaera eta hortaz, niri irakasti didaten portera ikasleei helerazi behar diet. Pertsona oro berdintzatzen ikasi behar dute, generoa alde batera utzita, normaltzat hartzen diren jokaerak kritikatzeko, ikuspegi kritikoa garatzeko. Ezin dugu haien pentsatzeko era nahi eran sortu, baina errealitatea aurkeztu behar diegu, behar bezala hezi eta ondoren norberak iritzi pertsonala formulatuko du. Honela izan behar da ordena eta ez alderantziz, izan ere, adin batean oso zaila da iritzia guztiz osatuta duen pertsona bateri pentsatzeko era aldatzea. Txikitatik landu behar da, jada tabu ugari ditugu munduan, gehiegi, eta genero ikuspegia ezin da beste tabu bat bihurtu, ezkutatzek ez du egoera hobetuko eta.

Gizonezkoen kirola hobea dela diote askok, ez dakit zein kirol den hobea oso zaila egiten baitzait konparazioa egitea; nola konparatu emakumeen kirola ikustea ezin badut. Ez diet gizonezkoen meriturik kendu nahi, baina nork daki zer gertatuko litzakeen emakumeek babesa eta laguntza berdina edukiko balute. Baina hau ez bada kritikatzeko telebista piztu eta emakume kirolaririk ez agertzea normaltzat hartuko da.

Pentsatu dezagun segundu batez neskatxoetan, ume guztiak Messi, Cristiano, Lebron... bezala izan nahi dute, hauek dira haien erreferenteak, bai mutilenak baita neskenak ere. Mutikoentzat kristoneko motibazioa da, jarraitzeko pausuak dituzte eta honela gertatzen da, kirolariak haien erreferenteekin topatzen direnean. Buelta gaitzeen nesken egoerara, zer pentsatuko dute haien idoloa mutil bat denean, telebistan edo irratan emakumerik ez dagoenean, motibatuak sentituko dira? Noren pausuak jarraituko dituzte? Nola motibatu ditzakegu neskek kirolariak izan daitezen ez badaukate nonor ispilu bezala?

3.MARKO TEORIKOA

3.1 Kontzeptu basikoak

Marko teorikoa ezinbestekoak izango diren definizio batzuekin hasiko da. Espainiako Errege Akademiak (RAE) honela definitzen du generoa: ezaugarri komun bat edo batzuk dituzten izakien multzo bat da, eta sexu bakoitzeko gizakiak biltzen dituen talde bat, ikuspegi soziokulturaletik ulertuta, ikuspegi biologiko hutsetik ulertu beharrean (RAE, 2021).

Nazio Batuen Erakundearen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (ECOSOC) honela definitzen du genero ikuspegia: Planifikatutako edozein jarduerak, legeak, politikak edo programak barne, sektore guztietan eta maila guztietan emakume eta gizonengan dituen ondorioak ebaluatzeko prozesua. Emakumeen eta gizonen kezkak eta esperientziak politikaren, ekonomiaren eta gizartearen arlo guztietan politikak eta programak egiteko, aplikatzeko, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko elementu izan daitezkeen lortzeko estrategia da, emakumeek eta gizonen onura bera izan dezaten eta desberdintasuna betiketzea eragotz dadin. Azken helburua generoen arteko berdintasuna lortzea da (ONU MUJERES, 2023)

Genero diskriminazioak logikoki sexu batekoa edo bestekoa izateagatik gizon edo emakume bat desberdintasun-egoeran dagoen edozein ekintzari erreferentzia egiten dio (Flores, Espejell & Martel, 2016). Floresek Fernandezek (2022) laguntzarekin kontzeptu honi beste buelta bat ematen dio: Esan nahi du asimetria soziala dagoela gizonen eta emakumeen artean; genero-desberdintasuna gizartean dauden faktore ekonomiko, sozial,

politiko eta kulturekin lotzen da pertsona bat bestea baino handiagoa den ideologiarekin. Kasu gehienetan, emakumearekiko diskriminazio handiagoa dago.

Hortaz, kontzeptuekin amaitzeko, esan genezake bilatzen duguna genero berdintasuna ala ekitatea dela. Genero-ekitateak emakumeen eta gizonen beharrak, lehentasunak eta interesak modu berean kontuan hartzea eta estereotipo matxistak edo henbristak indargabetzea esan nahi du. Genero-ekitateak edozein adinetako emakumeen eta gizonen erantzukizunak, eskubideak eta aukerak berdintzea barne hartzen du (Osagi, 2001).

3.2 Generoa eta kirola historian

Bi generoaen arteko desberdintasuna kirol mailan historia osoan eman da, orain dela urte asko egoera dramatikoki okerragoa zen. Tradizioz, emakumeek soinekoak erabili, janaria prestatu eta garbitu, seme-alabak hezi, gorputz eder eta delikatu bat mantendu eta pasibo, moral eta garbi egon behar zutela espero zen (Griffin, 1998; Sherrow, 1996; Woolum, 1998; Zimmerman & Reavill, 1998, Sagarzazu Olaizola & Lallana Del Riok aipatua, 2012). Jarduera fisikoari dagokionez, honen bidez helburuak hezitzailea eta terapeutikoa izan behar ziren, eta horien exekuzioa puritanismoz inguratuta zegoen.

Greziar eta Erromatar inperiora atzeratuz gero, emakumezkoen parte hartzea oso murriztua zen. Grezian adibidez, Erljio-esparruan – hileta-jokoei estuki lotua –, eta apaizak hautatzeko helburuz, ohorezko lasterketa bat egiten zen espartar dontzeilen artean, lasterketak izanik emakumezkoen gehien praktikatzen zuten ariketa fisikoa (Zapico Robles & Tuero Del Prado, 2014). Romari dagokionez, emakumeen artean, pilota-jokoa zen jarduerarik ezagunenetako bat, eta badira Napoli inguruan magistratuen alabentzat gordetako lasterketen lekukotza batzuk, nahiz eta gizarte-entretanimendukoak izan behar zuten, eta ez goi-mailako lehiaketakoak. (Pastor & Aguilera, 2007; Zapico Robles & Tuero Del Pradok aipatuta, 2014). Ekintza hauek ziren garaia hartan emakumezkoentzat baimendutako bakarrak, gainera Grezian emakumezkoak ezin zuten Joko Olinpikoak ikusi ere egin, emakumeek debekatuta zuten estadioan sartzea, baita heriotza-zigorra zuten debekua hautsiz gero (Pastor eta Aguilera, 2007; Zapico Robles & Tuero Del Pradok aipatuta, 2014).

Errenazimentuarekin jarraituz, mende honetan gizarte-mailaren banaketa mantentzen da eta gizarte-maila altuko emakumeek ez zutela maila baxuko emakumeek bezalako

ekintzak egiten ondorioztatu dezakegu. Zentzu horretan, goi klaseko emakumeek dantza atsegin zuten entretenimendu gisa, baita heziketa gisa ere. Herriko emakumeak herri-jokoetan parte hartzen jarraitzen du (García, 2006).

XVIII. eta XVII. mendeetan aldaketa ugari ematen dira bai politikoki, bai sozialki baina emakumeen egoerak ez du hobekuntzarik jasaten. Alde batetik, zientzialari eta ikerlari batzuek egunean jarraitzen duen ideal bat sortzea laguntzen dute: emakumea gizonezkoaren mendekoa dela (Cadavid Gallo et al., 2000; García aipatua, 2006). Gainera, kortsearen erabilera agertzen da berriro, eta, adibidez, medikuek haurdun dagoen emakumeari ariketa fisikoa egitea erabat debekatzen diote (García, 2006).

XIV. eta XX. mendeetan eman diren aldaketak behingoz garrantzitsuak dira genero berdintasunerako. Batez ere, aurreko urteetan jarduera fisikoari buruzko ideia berriek bultzatuta, eskola gimnastikoen sorrera bultzatu zuen eta aurrerago honen eboluzioa eragin zuen (García, 2006). Baita beste kirolean ere emakumeen presentzia handitzen hasi zen.

XX. mendean murgilduta, mende hasieran gertaera oso garrantzitsu bat eman zen, 1900.urtean lehenengo aldiz emakumeek Olinpiar jokoetan parte hartzeko aukera izan zuten, Parisen plazaratu zen, non 22 emakumeek eman zuten parte bertan (Zapico Robles, & Tuero Del Prado, 2014). Aipatu beharra dago, lehenengo Olinpiar jokoetan ez zuela emakumerik parte hartu.

XX. mende hasieran eman diren hobekuntzak aztertzeko Bonafék (2001) aipatzen dituenak hartuko ditugu kontuan. Emakumeen klub eta elkarteak, hala nola "Osasunaren Kirolaren Legionariak" edo Emakumeen Atletismo Elkarte, ugaritzen hasi ziren Espainiako lurralde osoan. Zenbait egunkaritako kirol-argitalpenak eta kirol-atalak emakumeen kirolari buruzkoak izaten hasi ziren. Goi mailako kirola egiteko amatasuna ez da oztopo izateak pisua galtzen hasten da 1948an Fanny Bankers-Koen txapeldun olinpiko izendatu zuten lehen emakume-ama izanik.

XX. mende amaieran, hirurogeiko hamarkada zehazki, aldaketen lekuko izan zen, mota guztietakoak (Bonafé, 2001). Emakumeak zientzia-munduan sartzen dira, eta kirol-esparruetan parte hartzen dute, ez bakarrik praktikatzaile gisa, baita mediku, entrenatzaile, psikologo eta abar gisa ere. Horren esker, ustezko biologia baten izenean egiten ziren debekuak, kirolen arabera parte hartzen uzten ez zietenak edo proba batzuetara igarotzea eragozten zietenak, desagertzen doaz.

Mende honetan jasan diren hobekuntzak hobeto ulertzeko aro modernoko JJOOetako emakumeen parte-hartzeari buruzko datuak aztertzea oso lagungarria izango litzateke. Horretarako, García Manso-k (2010) hartutako datuak izango ditugu erreferentzia bezala. Esan bezala, 1896. urtean Atenasen ospatu ziren Olinpiar jokoetan ez zuen emakumerik parte hartu eta bigarrenak, 1900. urtean Parisen ospatu zirenean 19 izan ziren parte hartzaileak, parte hartzaileen %1.6a izanik. Hurrengo txapelketetan portzentaiak ez zuen gorakadarik jasan, 1920. urtean Amberesen egindako Olinpiar Jokoetan oraindik parte hartzaileen %2.9a izanik emakumezkoa. Urte asko ondoren, 1988. urtean hain zuzen ere, Seulen ospatutako Olinpiar Jokoetan egoera nabarmenki aldatu zen, izan ere, guztira 2186 emakumeek parte hartu zuten, parte hartzaileen %25.9a izanik. Datuak urteak pasa ahala hoberantz joan dira, 2012. urtean Londresen ospatu diren Olinpiar jokoetan ia guztizko berdintasuna lortuz; guztira 4659 emakumeek parte hartu dute bertan, %44.2a izanik (Zapico Robles & Tuero Del Prado, 2014). Azken bi urteetan, STATISTA (d/g) webgunean ikus daitekeen bezala, baita emakumeen parte hartzeak gora egin du ere. 2016. uretan Rio De Janeiron ospatutako Olinpiar Jokoetan 5059 emakumeek parte hartu zuten, %45,2 izanik. Ospatu den azkeneko Olinpiar Jokoetan, 2021. urtean Tokion izandakoak, 5457 emakume izan ziren partaide, denera 11.420 partaide izan zirela kontuan hartuta, %47.79a emakumea izan zen. Datu hauek, oso positiboak dira eta hurrengo urteetan progresioarekin jarraituz datuak hoberantz joango direla iragarri daiteke.

3.3 Generoa eta kirola gaur egun

Nahiz eta berrikusitako azterlan askok diote gizartea pixka bat hausnartuagoa eta permisiboagoa dela jarduera fisikoan eta kirolean generoarekin zerikusi duen guztiarekin (Ordoñez, 2011), gertakarietan, oraindik ere emakumeen zati handi bat baztertzen da, kirola bizikidetzako kolektiborako gune gisa baztertzen da, eta kontsumo-ondasunen eta zerbitzuen merkatu potentzial garrantzitsu bat ere alferrik galtzen da. Emakumeen kirola sustatzea ezinbesteko osagaia da bizi-ohitura osasungarriak lortzeko ahaleginean (Dosal Ulloa, Mejía Ciro & Capdevila Ortis, 2017)

Emakumezkoen kirolak dir-dir egiten dute hedabideetan ez daudelako. Txapelketa entzutetsuak direnean ere (Amerika Kopa edo Munduko Futbol Txapelketa kasu), estaldura txikia edo ia nulua dago seinale irekiko telebistan eta prentsa idatzian. Kirol-jarduera serioek ez dute akatsik komunikabide masiboetan. Emakumeekin lotutako erreportajeak transmititzen direnean, sasi-kirol bati buruzko entretenimendu-istorioak izaten dira: adibidez,

emakume estatubatuarrei buruzko erreportajeak ateratzen dituztenean, azpiko arropetan futbol amerikarra jokatzen, lokatzetan borrokatzen edo hodian dantzatzen (Ordoñez, 2011).

Emakumezkoen futbol profesionaleko lan-baldintzei buruzko azterketa orokor batek jokalaria profesionalak eguneroko bizitzan aurrez aurre dituzten errealitateak nabarmentzen ditu. Laburbilduz, txosten honen arabera, jokalarien % 69a 18 eta 23 urte bitartekoak dira; jokalarien batez besteko soldata, oro har, 600 dolarrekoa da; jokalarien % 84k oinarrizko eskola-hezkuntza amaitu du, eta horien % 46k futbola ikasketekin konbinatzen dute; horien % 30ek futbola beste lan batzuekin konbinatzen dute. Gainera, kontratuen iraupena 12 hilabetekoa da, eta horien % 47k ez dute kontraturik eta horien % 90ek adierazi dute futbola adin goiztiarrean utzi beharko dutela familia-, finantza- edo lanbide-arrazoiengatik (FITPro Worl Players 'Unión, 2017).

Baina ez gara Estatu Batuetaraino joan behar futbol profesionalean dagoen genero-berdintasun galera ikusteko, izan ere, baita Espainiako errealitatea nahiko kritikoa da. Espainiako futbol profesionalean genero bakoitzeko hitzarmen kolektibo bat dago eta orain ikusiko dugun bezala honek desparekotasunak ezartzen ditu. BOEk argitaratutako AFE eta Ligaren hitzarmen kolektiboaren 5. artikuluan ezarritako datuak hartuko ditugu kontuan, alde batetik gizonezkoen hitzarmena, 13332 xedapena, 2015eko abenduaren 8an argitaratu zena eta beste aldetik emakumezkoen hitzarmena, 9765 xedapena, 2020ko abuztuaren 15ean argitaratu zena. Soldatarekin hasita, gizonezkoen 1.maila profesionalean hilean gutxienez 6.500€ kobratzen dute, urtean 14 orainsari edukiz, hortaz urteko soldata minimoa 91.000€-koa da. Emakumeek aldiz, jokalaria profesional bakoitzak urtean gutxienez 16.000 euroko kopuru gordina jasotzen du. Aintzinasun sariari erreferentzia eginez, futbolari profesionalari klubarekin duen kontratu-harremana iraungitzeagatik ematen zaion saria dena, gizonezkoekin hasita, 6 urte daramatzatenek, 19.250€-ko bonusa dute; 7 urte daramatzatenek, 31.300€; 8 urte daramatzatenek, 44.500€ eta 9 urte edo gehiago daramatzatenek, 75.000€-ko bonusa. Emakumeen kasuan, 6 urte daramatzatenek, 2.000€-ko bonusa dute; 7 urte daramatzatenek, 2.500€; 8 urte daramatzatenek, 3.000€ eta 9 urte edo gehiago daramatzatenek, 3.500€-ko bonusa. Edozein lan-jardueratarako baliogabetzen duen heriotzagatiko edo lesioagatiko kalte-ordainari dagokionez, futbolariari edo haren oinordekoei 180.000€ eman beharko litzaieke. Emakumeei erreferentzia eginez, futbolariari edo haren oinordekoei 60.000€ heriotzagatik eta 90.000€ ezintasun absolutuagatik. Gizonezkoen datuak 2016/17 denboraldikoak dira, esan bezala urte hartan sortu baitzen hitzarmena; eta urtero, aurreko denboraldiaren kantitateari KPIa gehitzen zaio. Hau kontuan hartuta, 2022/23 denboraldirako Espainiako lehen mailako futbolari baten

gutxieneko soldata urtean, webgune ezberdinetan jasotzen den bezala, 155.000€-koa da (Sport, 2022; Sueldos Públicos, 2023; Estadio Deportivo, 2022; As, 2022).

Halere, baita eman diren hobekuntzak ere aldarrikatu behar dira. Gizarte osoa emakumezkoen kirolaren garrantziaz ohartaratzeko eta genero-berdintasunera bideratzeko lagundu duen gertaera garrantzitsuenetariko bat 2022ko martxoaren 30ean eman zen. Egun hartan, Bartzelona eta Real Madrilek UEFA Women's Champions Leagueko final-laurdenaren itzulia jolastu zuten, Camp Nou futbol zelaian. 91.553 ikuslek ikusi zuten Camp Noun Txapeldunen Ligako final-laurdenetako itzulikoa. Hortaz, munduko emakumezkoen futbol partidu batean izan den bertaratze errekorra da. Aurreko errekorra Rose Bowl futbol-zelaian 90.195 ikusle izan zituen AEBren eta Txinaren arteko 1999ko Munduko Txapelketako finalean eman zen. Barçak Camp Noun publikoarekin jokatzeko duen lehen partida ofiziala da eta ikusleek ondo erantzun zuten (Rivas, 2022).

Beste gertaera oso positibo bat aurten eman da. 2023.urteko estatu batuetako emakumeen unibertsitate txapelketak ikusle asko izan ditu. ESPN+-en, sareko streaming zerbitzuan, finalerdiko bi kanporaketak izan ziren plataformako saskibaloijoko ikusienak, mutilen txapelketak barne. Iowa eta South Carolina taldeen arteko kanporaketak 5.5 milioi ikusle izan ditu, 2022.urtearekin alderatuz %72ko hobekuntza jasaten (Sport Illustrated, 2023). Horrek adierazten du zenbaterainoko erakargarritasuna izan duen aurtengo txapelketak eta orokorrean emakumezkoen kirolak.

3.4 Genero ikuspegia gorputz hezkuntzako klaseetan

UNESCOk (2019) baieztatzen du jarduera fisikoari eskainitako denbora murriztu egin dela, bai haurretan, bai helduetan, eta horrek ondorio suntsitzaileak utziko dituela osasunean eta bizi-kalitatean, eta eragin nabarmena izango duela eskolako, laneko eta gizarteko errendimenduan. Bizi-itxaropenak gora egin du etengabe, baina badirudi osasun oneko bizi-itxaropenak gainbeheraren zantzuak dituela, portaera sedentario handiegiak eragindakoak, besteak beste. (UNESCO, 2019).

Arazoa oso larria dela kontuan hartuta, konponbideak bilatu behar dira, eta gorputz-hezkuntzako saioak, zalantzarik gabe, funtsezko laguntza izan behar da, funtsezkoa baita osasun fisiko eta mental ona mantentzearekin lotutako ariketa praktika irakasteko. Gorputz Hezkuntza eskola-irakaskuntzako diziplina bat da, eta kirol-jarduera fisikoak eta artistikoak erabiltzen ditu euskarri gisa, helburu hezitzaile batekin. Irakasgai hau

eskola-eremuan dago, esku hartzeko praktika eta diziiplina pedagogikoa da, eta gorputz- eta mugimendu-baliabideak, lankidetzeta-espazio desorekatuetan sartzea eta lan-munduan lotzea sustatzen ditu (Perezon, 2018).

Hezkuntza Gizartearen islapena da, hortaz orain arte aipatutako arazoak edota bi generoen arteko desberdintasunak bertan ematen dira, baita alderantziz ere; Hezkuntzan ikasten dena ondoren Gizartean du ondorioa. Gorputz Hezkuntzako klaseen errealitatea kontuan hartuta, Fastingek (2000) egindako ikerketan Gorputz Hezkuntzako klaseetan, taldeka egin beharreko egoera motorretan mutilek ekintzak monopolizatzen dituztela ikus daiteke, nesken parte hartzea eta inplikazioa murriztea eraginez (Makazaga, Llorente & Kortabitarte, 2001).

Bestalde, García eta Martinezek (2000) Gorputz Hezkuntzako klaseetan ematen diren arazo batzuk agerian uzten dituzte, non generoaren araberako separazioa eta mutilenganako atentzio, interesa eta komunikazioa handiagoa nahiko orokortua den (Lleixá, 2003).

Jarraituz, gaitasun eta trebetasun motorrei erreferentzia eginez, ikasle askok, mutilek nahiz neskek, iritzi estereotipatuta dutelarik, gaitasun eta trebetasun horiek kirolekin erlazionatzen dute eta kirol horiek generoekin. Erresistentzia eta indarra eskatzen duten kirolak mutilei hobeto datorkiela uste dute bai mutilek bertan, baita neskek ere, izan ere, talde dinamikako egoera motorretan adituak bezala ikusten dira; koordinazioa edota malgutasuna gaitasunak aldiz, neskekin erlazionatzen dira (Zippich, 2001). Honek, hainbat ikerketetan ikus daitekeen bezala, Biskup & Pfister (1999) autoreek egindakoa adibidez, eragin zuzena du rol-ereduan; alde batetik, emakumezko kirolariek neska gazteentzako rol-eredu eskasa izatea dakar eta beste aldetik, gizonezko kirolariek mutilentzako rol-eredu gisa duten onarpen handia izatea eragiten du.

Aipatu beharra dago, 1970ko Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko Lege Orokorrak hezkidetzarako legezko baldintzak sortu zituela curriculum mota bera orokortzen neskentzat eta mutilentzat. Halere, neskek eredu maskulinoan sartzea ekarri du, eta hau eredu femenino tradizionalaren ukazioa izan da (Sicilia et al., 2008). Eduki kurrikularraren bilakaeraren esker, hurrengo urteetan emakumeen egoera heziketa fisikoan asko hobetu da, nik Rodríguez & Gómez (2018) autoreek egindako ikerketa hartuko dut kontuan. 1978ko Konstituzioak asko lagundu zuen kirola sozializatzen eta pertsonak fisikoki hobetzen ikusteari esker. Baita Kultura Fisikoaren eta Kirolaren Lege Orokorrak ere (1980), kirola eta GF bultzatzeko helburuari esker, pertsona guztiak, neskek zein mutilak, prestatuz

eta garatuz. Horrek guztiak jauzi handia eragin zuen emakumeek aisialdiko jarduera guztietarako, osasuna hobetzeko eta kirol-lehiaketa eta -diziplinetarako sarbidea izan zezaten, eta nazioarteko kirol-arrakasta handiak ere lortu zituzten. Lehen aipatu dudan bezala, 1970ko Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko Lege Orokorrak curriculum mota bera proposatzen du, hots, edukazio mistoa, baina Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoa (LODE, 1985) da, proposamena obligaziora bideratzen duen legea. Hurrengo urteetan martxan jarri diren legeak maila baxuagoan eragina eduki dute. Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorrak (LOGSE, 1990), Hezkuntzaren Lege Organikoak (LOE, 2006) eta Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak (LOMCE, 2013) garrantzi berezia ematen diote, bata bestearen atzetik, aniztasunari, koedukazioari eta hezkuntza ulerkorrari, zeharka emakumeen egoera hobetuz. Amaitzeko, aipatu beharra dago Berdintasunaren eta Emakumeek Kirolean Parte Hartzearen aldeko Manifestuak izan zuen garrantzia. Dokumentu honek, Kirol Kontseilu Gorenak sustatu eta bultzatu zuen 2009an, eta Jarduera fisikoaren eta kirolean genero-desberdintasunaren aurka borrokatzeko beharrezkoak diren hamaika ildo azaltzen ditu. Horietatik batek eragin zuzena du Gorputz Hezkuntzarekin: "Eskola- eta kirol-eremuan koedukazio-estrategien erabilera sustatzea, baita parte-hartze- eta praktika-testuinguruak ere, neskak eta mutilak era guztietako jardueretan sar daitezen, ohitura iraunkor gisa".

Curriculum ezkutuak zeresan eta ekarpen handia du gai honetan. Curriculum ezkutua ikasleei inplizituki transmititzen zaizkien ikaskuntzak dira, nahi gabe eta inkontzienteki eta progresiboki irakasten dira, eta curriculum esplizituak baino eragin handiagoa izan dezake. Irakasterakoan aintzat hartzen ez den guztia dakar berekin, hala nola tratu ona, errespetua, balioak, giroa, testuingurua, irakasleen profesionalaren prestakuntza, ematen duen ikasgaiarekiko tituluaren egokitasuna, denbora, ordutegiak, aldean neke mentala eta fisikoa, irakaslearen zein ikaslearen motibazio estrintsekoa eta intrintsekoa, eduki hutsak, monotonia, zereginen hedapena, irakaskuntzako estrategia berritzaileen erabilera eskasa, besteak beste, eta zalantzarik gabe kontuan hartzen ez direnak, ez dira eztabaidatzen eta paperean okerrago adierazten, ezagutza irakasten den aldi berean irakasten dira, besterik gabe (Marcillo, 2019). Honen alderdi batek generoarekin du zerikusiri, eta ikasleengan sexuen arteko desberdintasunak markatu izan ditu denbora luzez. Gorputz Hezkuntzan hain ohikoak diren trebetasun fisikoak metodologia tradizionalaren bitartez lantzerakoan, errendimenduaren paradigmaren oinarrituz hain zuzen ere, gizonezkoen nagusitasunaren ideologia sustatzen da, emakumezkoak alde batera utzita. Beste adibide nabarmena taldekatzeak izango genituzke; irakasleak taldeak egiterako orduan ohikoenetarikoa irizpide bat generoa izan ohi da, berriro ere sexismoa sustatuz.

3.5 Genero ikuspegia jarduera fisikoa eta kirol mailan

Jarduera fisikoa muskulu egituraren uzkurketagatik sortzen den gorputzeko edozein mugimendu da eta gastu energetiko bat sortuko digu. Autobusa hartzeko korrika egitea, platerak garbitzea edo erosceta egitea jarduera fisikoa da. Jarduera fisikoa egunero egiten dugula esan dezakegu. Horregatik da garrantzitsua bizitza sedentarioa ez edukitzea, gure bizimodua delako osasuntsu egotea edo ez egotea eragingo duena (Dosil, 2004). Finean, giharrek eragindako mugimendu orori deritzo, energia gastua sortzen duena (etxea garbitu, eskolara oinez joan, sukaldatu, ohea egin, eta abar.).

Bestalde, Espainiako osasun ministerioak (MINSAL, 2023) kirolak mota guztietako jarduera fisikoari egiten dio erreferentzia, partaidetza antolatuaren edo bestelakoaren bidez egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea helburu dutenak, gizarte-harremanak garatuz edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortuz.

Emakumeen eta Kirolen Fundazioaren (WSSF, 2010) datuen arabera, emakumezkoek gizonetzkoek baino kirolerako joera txikiagoa dute. Gainera, horietatik laurdenek bakarrik erabiltzen dute 60 minutuko jarduera fisikoa egunean, eta proportzio hori murriztu egiten da 10 urtetik aurrera. Emakumeen kirol-parte-hartze txikiak helduaroan jarraitzen du, 16 urtetik gorakoek % 12.7k baino ez baitu kirola egiten gutxienez astean behin.

Kirol-ohiturei buruzko inkestek erakusten dutenez, kirola egiten duten emakumeen % 5ek baino ez du parte hartzen araututako lehiaketetan, gizonen % 20ren aldean; eta aldizka lehiatzen diren gizonen kopurua emakumeen kopurua baino 5,8 aldiz handiagoa da (García, 2006). Horren harira, Emakumearen Institutuaren arabera, gizonen % 50ek baino gehixeagok adierazi du noizbait lehiaketa herrikoiren batean parte hartu duela, baina ehuneko hori % 30eraino jaisten da emakumeen kasuan (IM, 2006).

Pavónek eta Morenok (2008) jarduera fisikoa egiteko motibazioei eta interesei buruzko ikerketa bat egin zuten Murtziako Unibertsitateko 1512 ikaslerekin, eta emakumeak sedentarioagoak direla aurkitu zuten. Honen arrazoi nagusia, ez baitzaie gustatzen gaitasunari eustea zailtzen duten epe luzeko helburuak; gizonen, berriz, ariketaz eta lehiaketaz gozatzen dute, eta bere jokabideari eusten dion berehalakoa.

Motibazio falta ez da emakumezkoek duten arazo bakarra jarduera fisikoa egiterako unean, beste faktore batzuk daude, zeintzuk gizonetzkoen mailara iristeko zailtasunak

areagotzen duten. Horretarako, beste ikerketa bat izango da kontuan hartuko duguna, Ramirez-Vélez et al. (2016) autoreek egindakoa erabiliko dugu erreferentzia moduan. Bertan, jarduera fisikoa egiteko gazteek dituzten zailtasunak aztertzen dute, oztopoen artean hurrengo hauek izanik: denbora falta, eragin soziala, energia falta, borondatea, min hartzeko beldurra, trebetasun falta eta baliabide falta, oztopo nagusiak denborarik eza eta baliabiderik eza izan ziren. Emakumeak izan ziren arazo edo zailtasun bakoitzean erakutsi zuten maila altuenak, gizonezkoen datuak baino nahiko okerragoak izanik.

3.6 Genero-estereotipoak

Estereotipoak gizarte-taldeetan eragin zuzena dute informazioaren prozesamenduan, baita norberaren nahiz gainerakoen jokabidean ere (Dovidio, 1986). RAEk emandako esanahi semantikoa aztertuz gero, estereotipo bat talde batek onartzen duen ideia edo irudi bat da izaera aldaezina duena da. Genero-estereotipoetan murgilduz, sineste mota bat dira, genero-identitatearekin eta -ideologiarekin batera, pertsona bat emakume edo gizon gisa kategorizatzean oinarritutako jokabide diskriminatzaileen azpian dagoena (Barberá, 1998).

Genero estereotipoak uste baino kalte gehiago jasaten dute gizartean eta nola ez emakumeengan efektu oso negatiboa sortzen du. Sexismoa eta jokabide sexistak genero-estereotipoetan sortzen dira, baita indartu ere egiten dituzte eta norberaren gaitasunak, beharrak, iritziak eta abar aintzat hartzea eragozten dute, gehienekoek esandakoa inposatuz (Consejo de Europa, 2019).

Hauen sorkuntzari dagokionez, testuinguru ezberdinetan ematen denez oso zaila da arrazoi jakin bat ematea, baina azterketa batzuen ondoren, Macías & Moya (2002) autoreek estereotipoak hainbat prozesu kognitibo eta emozionalen baitan sortuak eta kontserbatuak daudela diote. Horren harira, batzuetan estereotipoak berez betetzen diren iragarpenengandik sortzen dira beste batzuetan aldiz, ilusio-korrelazioetan eta hegemonia-pertzepzioetan dute hasiera. Beste kasu batzuetan, gertaerak kategoriekin erlazionatzeko dugun joerak bultzatuta, baita norbanakoak informazioa gogoratzeko duen memoria selektiboak ere eragina du.

Baita telebistak ere eragin zuzena du hauen sorkuntzan. Velandia-Morales & Rincónek (2014) egindako ikerketan, telebistak, bertan agertzen den publizitatea zehazki, genero-estereotipoetan duen eragina nabarmentzen dute. Gizonezkoen irudikapenak

gehiago erabiltzen dira testuinguru publiko eta sozialetan, eta femeninoak, berriz, testuinguru pribatu eta intimoetan. Horrek emakumea funtzio pribatuetara eta etxeko funtzioetara harpidetzeko eskema paternalista mantentzen eta indartzen du, eta gizonari, berriz, esparru publikoetan aritzea dagokio. Horrez gain, korrelazio esanguratsua lortu zen objektu sexualaren eta dekoratiboaren irudikapen femeninoen eta estereotipo sexisten erabileraren artean, hala nola emakume sexistarena, emakume arriskutsuaren estereotipoa indartuz. Baita etxekoandrearen eta amaren rolen erabileraren eta emakumeak adierazitakoa baliozkotzen duten gizonezkoen irudikapenen erabileraren artean ere, aurretik aipatu dudan bezala, emakumeak mendekoak bezala irudikatzen eta gizonezkoak aldiz, haien babesle bezala.

Eskolak berebiziko eragina du bai alde positiboan baita alde negatiboan ere. Irakasleak ikasleek jarraitu beharreko ereduak dira, autoritatea dira eta gaia kritiko askotan pentsatzen dutena zuzeneko eragina du haiengan. Hortaz, irakaslearen papera ezinbestekoa izango da ikasleen artean genero-estereotipoak kontrolatzeko eta horren harira, eskolan gertatzen diren gertaera sexistak aztertzeke eta hauei aurre egiteke. Horretarako, irakasleen etengabeko formakuntza beharrezkoa izango da (Arenas, 2016) Eskolara joan aurretik dagoeneko umeak desberdintasun hauetan hezita daude, testuinguruak ikuspuntu hura sortzen laguntzen du baina eskolara sartzekoan iritzi horiek erreproduzitu eta indartzen dira. Neskak eskolan desabantaila sozialak onartzen eta galtzen ikasten dute (Arenas, 2016). Gainera, neskak eta mutilak modu ezberdinean hezi egiten dira, hain zuzen ere: neskei arlo emozionalean ahulagoak direla irakasten zaie. Ikusizko kulturak ere estereotipoak erreproduzitzen ditu, informazioa modu inplizituan transmitituz.

Estereotipo horiek txikitatik suertatzen dira, honegatik lehen bait lehen egin behar da honen trataera. Marín Gilek (2014) egindako ikerketan, Haur Hezkuntzako ikasleen inguruko argazkietan eta/edo marrazkietan generoari buruzko ikuspegi tradizionala eta androzentrikoa irudikatzen duten irudi ugari aurki daitezkeela ikus daiteke, baita gizonei eta emakumei egozten zaizkien rolak ere. Estereotipoen erreprodukzio inplizitu horrek curriculum ezkutura bideratzen gaitu.

Genero-estereotipoei buruzko ikerketa ugariak gizonezkoen eta emakumezkoen esleitzen zaizkien ezaugarri positiboak dagokionez asimetria nabarmena dagoela erakusten dute. Gizonezkoen eta emakumezkoen baina ezaugarri positibo gehiago esleitzeko joera dago, baita generoaren arabera pertsonak bereizteko ere (López & Morales, 1995).

Ikerketekin jarraituz, Sandra L. Bem (1974) psikologoak estereotipoei buruzko ezagutza ugari partekatu zituen. Perspektiba honen bitartez, bere gain hartzen du gizonezkoak eta emakumezkoak era estereotipatuan jokatzeko dutela, bi generoen arteko desberdintasuna islatzen duen nortasun-ezaugarri jakinak bereganatuz. Zehazki, gizonezkoaren dimentsioa honako pertzepzio orokor honen arabera eraikiko litzateke: gizonezkoek ezaugarri edo ezaugarri instrumental gehiago dituztela, hala nola gogortasuna, independentzia, lehia edota agresibitatea besteak beste. Emakumezkoaren dimentsioa berriz, ezaugarri adierazkorren arabera eraikiko litzateke; emozionalak, menpekoak edota konpasiboak bezala definituz (Ruble & Martin, 1998).

3.7 Estereotipoak gorputz hezkuntza eta jarduera fisikoan

Kontuan izan behar dugu ikaskuntzaz hitz egitean oso garrantzitsua dela irakaslearen eta ikaslearen arteko interakzioa, eta hor sartzen da jokoan Pigmalión efektu ezaguna. Pigmalión efektua pertsona batek bestearekiko dituen sinesmenek eta itzaropenek bigarrenaren jokabideari eragiten dioten prozesua da (Gargantilla-Madera et al., 2016; Molina Soria, Rojas Torres & Orihuela Gutierrezek aipatua, 2021). Hezkuntza-esparruan murgilduz, irakasle batek ikasle baten gainean duen sinesmena edo itzaropena, ikasle horren errendimenduan eragina izan dezakeena (Burgueño, 2016; Molina Soria, Rojas Torres & Orihuela Gutierrezek aipatua, 2021) dela esan genezake. Esan bezala, ikasleengan eragin zuzena izan dezake, izan ere, ikasleekiko itzaropena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto jokatuko dute (Wang & Cai, 2016; Molina Soria, Rojas Torres & Orihuela Gutierrezek aipatua, 2021). Irakasleen eta ikasleen arteko harreman-sare horren barruan hainbat estereotipo eta jarrera sexistak aurkitzen ditugu, eta hezkuntzako espezialistak garenez, horiek ezabatzeko neurriak hartu eta ezagutu behar ditugu (Rosenthal & Jacobson, 1968; Fernández-Garcíak aipatua, 2005).

Ikasgeletan, Gorputz Hezkuntza irakasgaiak eredu maskulino bat erreproduzitzen du, batez ere profil motorrean zentratzen baita (indarra, potentzia eta erresistentzia). Beste balio batzuk, hala nola lankidetzak, parte-hartzea, norberaren gorputza ezagutzea, baita beste gaitasun fisiko batzuk ere, hala nola koordinazioa, erritmoa, oreka, ez dira lehenesten (Monasterio et al., 2011). Honek, estereotipo komunena sortzea eragiten du, “gizonezkoak emakumezkoak baino prestatuago daude jarduera fisikoa egiteko” ala “mutilek neskek baino nota hobea jaso beharko lukete”.

Aurreko estereotipoari dagokionez, Monasterio et al. (2011) lanean planteatzen da pubertarotik aurrera adierazitako alde txikiak daudela: Egiaztatu da abiadura, arintasuna, erresistentzia edo oreka gaitasun neutroak direla, eta indarraren kasuan bakarrik dagoela fisiologikoki testosteronaren presentziak zehazten duen gizonezko izaera maskulinoa, muskulu-masaren garapena errazten duen eta pubertarotik aurrera potentzia handitzea dakarren hormona sexuala (García & Asins, 1994; Monasterio et al-ek aipatua, 2011). Hortaz, estereotipo garrantzitsuena bertan behera joango litzake, estereotipo hutsa bezala utziz.

Arenas, Conti & Masek (2022) egindako berrikuspen sistematikotik estereotipo hauei buruzko ideia oso interesgarriak atera daitezke. Nahiz eta azken ikerketetan material kurrikularrean genero-estereotipoen presentzia errealitate bat da oraindik ere. Hala ere, duela gutxi egindako azterlanetan berdintasunezko agerpena sumatzen hasi dira. Horrez gain, ikasleen artean jokabide eta jarrera estereotipatuak gertatzen dira oraindik ere, bai mutiletan baita nesketan ere. Horregatik, oso txikitatik irakasleak pentsamendu kritikoa garatu behar du ikasleengan. Hau gutxi izango balitz, irakasleak eta ikasleek oraindik sexu-harreman estereotipatuak dituzte gorputz-hezkuntzako eduki jakin batekiko. Eduki edo kirol tradizionalei lotutako programazioak egiteaz gain, neskek nolabaiteko desafekzioa eragiten diete gorputz-hezkuntzari.

Bestalde, Hezkuntzaren testuinguruan, egindako ikerketetan, Gónzalezek (2005) egindako ikerketan adibidez, hurrengoa ondorioztatu daiteke: Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako testuliburuetan argitaratzen diren argazkien edukia aztertuz, material didaktiko hori erabiliz estereotipoak erreproduzitzen laguntzen duten elementuak agertzen direla ikus daiteke.

3.8 Umeen kirolari erreferenteak

Lan honetarako kontuan hartuko den beste elementu oso garrantzitsua umeez dituzten kirolari erreferenteak edo gustuko duten kirolariak, izan ere, badirudi egungo gazteek ez dituztela emakumeak erreferente bezala.

Gaur egun, kirol-idolo edo erreferentea kirol mailan nabarmendu diren pertsonen egiten diren erreferentzia, bai nazionalki baita nazioarte mailan ere eta egiten dutenarekin bat egiten dutenek miresten dituzten pertsonak izendatzeko erabiltzen den terminoa da (Diario Concepcion, 2019).

Ikerketa ugari daude esandakoa baieztatzen dutenak. Pedregosak (2018) adibidez, umeen kirola eta kirolari gustukoena zeintzuk diren jakiteko eskola bereko 118 ikasleei haien erreferenteei buruz galde bat egin zien eta soilik 7 ikaslek eman zuten emakume baten izena, %5.93a izanik.

Honen eragile nabarmenena kirol-prentsa da. Gómez-Colell, Medina-Bravo & Xavierrek (2017) egindako espainiako kirol-prentsari buruzko ikerketan aztertutako aldizkariak bi generoen arteko desberdintasuna indartzen lagundu dutela ondorioztatu da. Emakumeak kirol-modalitateen bat zuten azaletako laurden batean baino ez ziren agertzen. Gainera, kasu horietan, hots, emakumeak agertzen zirenean, bigarren mailako posizioan geratzen ziren gehienak ez baitziren ez titular nagusiaren ez irudi nagusiaren protagonista izan, eta ez zitzaizkien informazio-iturri gisa hitzik eman. Gainera, ez zen inolako aurrerapenik ikusi; izan ere, emakume kirolari buruzko informazioa bilatu zuten behaketaren esparruan, ez zen bilakaera nabarmenik hauteman, eta horrek hurrengo urteetan egoera oso antzekoa izango dela adierazten du.

Eskolak gaia honetan lagundu beharko luke umeei emakumeak erreferente bezala izan dezaten, baina ikerketa batzuetan kontrakoa gertatzen dela ikus daiteke. Hernández, Martos-García & Navajasek (2017) egindako azterketan eskolako testuliburuak, hots, material kurrikularrak, generoari dagokionez tratamendu desberdina izaten jarraitzen dutela ondorioztatu daiteke. Irudiek irudikapen bidezkoagoa duten arren, eta hori aurrerapen txiki bat bada ere, testuetako aipamenak eta sexuen arabera tratuak ez dute berdintasun hori erakusten. Emakumei ikusgaitasun gutxi emateaz gain, hizkuntzaren tratamendu desegokia ere ikusi da, eta horrek emakumeak ikusezin bihurtzea dakar.

Baina emakumea ala gizonezkoa izatea alde batera utzia, umeei kirol-erreferentea izatea garrantzitsua al da? Méndez-Giménez, Fernández-Río & González (2008) esanean garrantzitsua da baina alderdi positiboez gain baita alderdi negatiboak izan ditzake. Alderdi positiboekin hasita, erreferente bat edukitzeak bi eratan lagundu dezake umea: lehena abilezia eta errendimenduan; eta bigarrena, lan etikoan. Hau diote, gogor lan egiteko eta maila altuagoa lortzen saiatzeko motibazioa lortzeko laguntza direlako eta bereziki gogor lan egiten duten eta sakrifizioak egiten dituzten kirolariak erakartzen dituztelako kirolari gazteak. Munduan zehar programa asko diseinatu eta inplementatu dira, eliteko kirolariak eskaintzen dituzten jokabide-ereduen ustezko onurak aprobetxatzeko, gazteengan eragin positiboa izan dezan. Halere, esan bezala baita eragin negatiboa izan dezake, izan ere, kirolariak jokabide-eredu negatiboak izan daitezke beren ekintza desegokiengatik edo legez

kanpokoengatik, normalean komunikabideen bidez estaldura zabala jasotzen baitute. Beste eragin kaltegarri bat gertatzen da hedabideek kirol-izarrak edertasun-objektu gisa eta produktu jakin batzuk saltzeko kako gisa tratatzen dituztenean. Honegatik, eskolan erreferenteen trataera egokia egin behar da, alderdi positiboak indartuz eta alde negatiboek duten ondorioak nabarmenduz.

4.HELBURUAK

1. Gaur egun umeen artean generoaren arabera egiten den jarduera fisikoa eta kirolari buruz duten iritzia nahiz ezagutzak jakin.

1.1 Umeen kirolari erreferenteak ezagutu.

1.2 Kirol gustuei dagokionez bi generoen arteko ezberdintasunak dauden jakin.

1.3 Kirolen bat praktikatzeko unean bi generoen arteko ezberdintasuna ezagutu.

1.4 Jarduera fisikoa eta kirolari buruzko estereotipoak betetzen diren jakin.

2. Emakume kirolari profesional batek kirolaren munduko genero ikuspegiari buruz duen iritzia ezagutu.

2.1 Bi generoen arteko berdintasuna lortu dela uste duen jakin.

2.2 Egoera honi aurre egiteko egin beharrekoa zer den edo esku-hartzea zein izan beharko litzatekeen ezagutu.

2.3 Kirol mailan bi generoen arteko ezberdintasunak zeintzuk diren ezagutu.

2.4 Azken urteetan hobekuntzarik eman den jakin.

5.METODOLOGIA

Genero ikuspegiaren errealitatea ezagutzeko, alde batetik ume batzuei galdera batzuk egin dizkiet eta beste aldetik, emakume saskibaloi jokalaria batentzat elkarrizketa bat prestatu dut. Honen esker, bi ikuspuntu ezberdin ezagutzeko aukera edukiko dugu estereotipoak ezeztatzeko edo baieztatzeko aukera izanik.

5.1 Ikasleen iritzia

Lagina:

Laginari dagokionez, denera Aldaialde eskolako 108 ikasle izan dira galdetegian parte hartu dutenak. Bertan praktketan ibili naiz eta gertutasunez egiteko aukera eduki dut haien erantzunak ahalik eta zintzoenak izanik. Horien artean, 57 mutilak dira eta 51 neska; generoari buruzko galderak direnez, bien arteko oreka ezinbestekotzat hartzen dut baita bien azterketa indibiduala ere. Ikasle hauek lehenengo mailatik hirugarrenera bitartekoak dira, 6 eta 9 urte bitartekoak hain zuzen ere, horren esker gaur egun generoa eta kirolari buruzko txikitatik dagoen iritzia ezagutuko dugu. Finean, haiek dira gizartearen etorkizuna, haien eskuetan dago genero berdintasuna, beraz oso gertutik behatu beharra dago zer egin eta pentsatzen duten.

Instrumentua:

Lehenengo azterketa inkesta bidezko ikerketa bati dagokio, Buendía, Colas & Hernández (1998) dioten bezala, arazoei erantzuteko gai delako, bai termino deskriptiboetan, bai aldagaien erlazioan. Gainera, informazioa sistematikoki jasotzen da, ikertzaileak manipulaziorik edo esku-hartzerik egin gabe.

Denera sei galderek osatzen dute inkesta edo galdetegia hau; nire helburua lortzeko, galdera gutxi baina zehatzak behar nituen, horregatik 6 galdera kualitatibo zehatz prestatu ditut. Galdera zehatzak eranskinetan daude eskuragarri, zehazki 1. eranskinari datorkio.

Prozedimendua:

Galderak prestatzerako orduan, aurrena helburuetan oinarritu naiz baita marko teorikoan eskuratutako informazioan ere. Bi alderdi hauek abiapuntu bezala edukita eta praktketan, Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala behatutakoarekin formulatu ditut galderak. Ondoren, tutorearekin hitz egin eta bere baimenarekin, galdetegia saioetan zehar aurrera eramatea erabaki dugu. Gainerako ikasleen erantzunak eragina izan ez dezan, banan banan atara ditut pasillora eta koadernoan apuntatzen joan naiz erantzun bakoitza. Ondoren, egunean bertan ordenagailura pasatu ditut jarraian grafikoak egin eta ondorioak ateratzeko

5.2 Kirolari profesionalaren iritzia

Lagina:

Elkarrizketa, Domusa Teknikako saskibaloijokalaribatentzatprestatudut. Intza Lizarazu 31 urte dituen emakume Azkoitiarra da, saskibaloijokalaria espainiako bigarren mailan eta bestalde Aldaialde eskolako Lehen Hezkuntzako irakaslea da.

Instrumentua:

Bigarren azterketa, elkarrizketa bidezko ikerketari dagokio, komunikazio-prozesu baten bidez informazioa biltzean datza. Prozesu horretan, elkarrizketatuak elkarrizketatzaileak planteatutako galderei erantzuten du, aztertu nahi diren dimentsioen arabera alde aurretik diseinatzen direnak (Buendía, Colas & Hernández, 1998).

Denera, 10 galderaz osatutako galdetegia da. Galdera asko nituen buruan, baina denbora dela eta galdera gakoak aukeratu behar izan nituen. Galdera zehatzak eranskinetan daude eskuragarri, zehazki 2. eranskinetan aurkitu daitezke.

Prozedimendua:

Hau aurrera eramateko; lehenik, lehenengo ikerketaren ondorioak atera behar izan ditut hauek oinarri bezala izan nahi ditudalako. Saskibaloijokalaria izateaz gain, esan bezala Aldaialde eskolako irakaslea da, hortaz ez ditut zailtasunik eduki elkarrizketa antolatzerako unean. Nola ez, elkarrizketaren ideia nagusia helarazi nion, baina ez nizkion galderak bidali, izan ere, nahiz eta prestatu eduki, moldakorra izatea nuen helburu, haren erantzunen baitan ekiten. Buendía, Colas & Hernández (1998) dioten bezala, honen bidez azaldu baino ulertu nahi da, esanahia maximizatzea bilatzen da eta objektiboki egiazkoa den erantzunaren zain egon gabe, baizik eta subjektiboki zintzoa bilatzen da.


6.EMAITZAK

6.1 Galdetegia

1.Galdera:


Lehenengo galderari dagokionez, ikus dezakegu soilik 5 mutilek ez dutela kirolarik praktikatzen, hortaz %91.2ak kirolen bat praktikatzen du. Neskei erreferentzia eginez,

portzentaia nahiko aldatzen da, izan ere, galdetegian parte hartu zuten ia %30ak kirolarik praktikatzen ez duela erantzun du, 51tik 15 izanik.



2.Galdera:


Bigarren galderan murgilduz, neskek eta mutilek emandako erantzunak eta horren arira, hauek gustuko duten kirolak nahiko desberdinak direla ikus dezakegu. Mutilei dagokionez, gehiengoak futbola du gustukoan, 27 ikaslek hain zuzen ere, hortaz ia erdiak kirola hau du gustukoan, %47.4ak zehazki. Beste



kirolek jarraitzaile kopuru antzekoak dituzte, saskibaloia eta atletismoak hein batean nabarmenduz, ia %30ak bietako bat erantzunez. Aipagarria da mutilen artean inorrek ez duela dantza kirolik gustukoan hartzen. Bestalde, neskei dagokionez, gimnasia eta dantza gustukoan duten kirolak direla argi dago, %60.8ak bietako bat aukeratu du gustukoena bezala. Gainerako kirolek antzerako kopurua dute, baina nesken artean futbolak duen jarraipena nabarmentzekoa da, izan ere, 51 nesken artean soilik 2k aukeratu dute haien gustukoan kirola bezala.

3. Galdera:


3. galderarekin jarraituz, bi generoen arteko desberdintasunekin jarraitzen dugu. Nesken %41ak kirol munduan erreferenterik ez duela erantzun du, ia erdiak ez du jarraitzeko idolorik. Nahiz eta orokorrean futbola ez izan haien kirolarik gustukoena, 11 ikaslek futbolarien bat du erreferente bezala.



Bestalde, mutilei dagokionez, %10.5ak ez du erreferenterik, neskek baino %30 gutxiagok du galera hura. Futbolaren presentzia nabarmena da mutilen artean ia %60ak baitu futbolarien bat erreferente bezala.

4. galdera:


Bi generoek emandako erantzunak bide berdinerara eramaten gaituzte. Bai mutilek, bai neskek ez dute emakumerik erreferente bezala kirol mailan. Mutilen erantzunak nabarmenagoak dira, izan ere, galdetegian parte hartu duten 57 ikasleen artean soilik 3k dute emakumeren bat



idolo bezala. Baina, esan bezala neskek emandako erantzuna nahiko antzekoa da, portzentaiak bakarrik %15ean hobetzen baitira. Galdetegian parte hartu duten 51 nesken artean 11 izan dira baiezkoa eman dutenak.

5. eta 6. galderak:

Azkeneko bi galderak batera aztertuko ditut, hortaz ikus daiteken bezala bi generoek emandako erantzunak bateratu ditut. Aurreko galderan eman diren erantzun aipagarriak haratago doaz saskibaloia munduan murgilduz gero. Lehenengo galderari erreferentzia eginez, erdiak baino zertxo bait



gehiagok saskibaloia jokalariren bat ezagutzen duela erantzun du, %54.6ak hain zuzen ere. Emakume saskibaloia jokalariren bat ezagutzen al duten galdetzerakoan, 108 ikasletik soilik 9k norbait ezagutzen dutela erantzun dute, %8.33a izanik, hortaz %91.66ak ez duela inor ezagutzen aitortu du.

6.2 Elkarrizketa

-Kirol munduan berdintasuna lortu dela esango zenuke? Zer falta da oraindik?

+Oraindik ez da berdintasuna lortu baina azken 5 edo 6 urteetan behintzat saskibaloia munduan aldaketa eman da orokorrean zentzu guztietan, bai soldatan, bai baldintzetan, hortaz bide onetik goazela uste dut, baina oraindik guztizko berdintasuna ez da lortu. Batez ere soldatan aldaketa handia eman beharra dago oraindik gizonezkoenarekin ez baitu zer ikusirik. Baita erabiltzen ditugun instalazioak ere ez dute zer ikusirik, baldintza nahiz ordutegi aldetik eta bidaiatzeko baldintzak asko hobetu beharko lukete. Azkenik, nahiz eta emakumeen saskibaloia geroz eta gehiagoban saltzen den telebistaren laguntzak hobetu beharko luke dezente gizonezkoen maila berean egoteko.

-Kirolaria bezala baloratua sentitzen zara? gizonezkoekin alderatuz?

+Ni zorionez baloratua sentitzen naiz, 22 urte daramatzat talde berdinean jolasten eta hasi nintzenean ez nuen uneren batean soldata jasoko nuenik espero, ez dut diruarengatik jolasten baina ez nuen inoiz errealitate hau imajinatzen. Gehiago eskatu ahalko genukeela? seguru baietz eta aspektu hau etorkizunera begira hobetu dezakegun zerbait da, nire atzetik datozenak ahalik eta baldintza hobereanean jolastu dezaten.

-Emakumea izateagatik gaur egun kirol munduan baztertuta sentitzen zara?

+Nik pertsonalki esango nuke ezetz, badago momenturen batean konparaketa hori egiten duzula, izan ere, gizonezkoek duten baldintzak eta eskaintzak askoz hobeak eta anitzak dira. Baina nire kasuan zorte handia eduki dut, adibidez partidu batzuetara hegazkinez goaz baldintza nahiko onekin. Halere, egia da adibidez entrenamendu ordutegia ez da hobereana, alde batetik gizonezkoek entrenatzen ez duten unean dago libre eta jasotzen duten soldata ez denez bizitzeko nahikoa beste lan bat egiteko behartuta sentitzen gara, entrenamenduak lan egin ondoren eginez.

-Edozein kirola egiteko libre sentitu zara?

+Zorionez bai, betidanik futbola eta saskibaloia asko gustatu zaizkit eta Azkoitian garai hartan bi kirol horiek ziren presentzia gehiena zutenak. Eskola kirolan soilik bi kirol horiek genituen aukera bezala, baina mutilek ere. Halere, nire lagunak batek zailtasun gehiago eduki ditu gustuko zuen kirola praktikatzeko orduan, garaia hartarako gizonezkoentzat estipulatuta zeuden kirolak praktikatzeko hain zuzen ere.

-Nor zen zuen idoloa nerabezaroan?

+Egia esanda ez nuen erreferenterik, egia da behin saskibaloian murgilduta eta nire interesa pizten zein heinean erreferenteak aurkitu nituen baina hasiera batean ez nuen erreferenterik.

-Hortaz, ez zenuen emakumerik erreferente bezala?

+Ez, nik uste hori zela falta zena, edukitzea erreferente bat esateko joe ba nik ebai hura bezalakoa izan nahi dut. Nik uste hori jundala gerora, heldutzean aipatu bezala nire interesak gora egiten zuen arabera.

- Ikasleei egindako galdetegian, ondorioztatu daiteke ez daudela edo ez dituztela emakume kirolariak erreferente bezala, zein iritzi duzu honi buruz? Zer egin genezake hau aldatzeko?

+Nik uste hori dela gehienbat gizarteak saltzen duenak bultzatuta, azken finean, telebista pizten duenean gizonezkoen kirola dago lehena beti eta zailtasun handiekin aurkitu ditzakegu emakumeak. Egia da, azken urteetan geroz eta emakume gehiago daudela

telebistan baina berdintasuna lortzeko oraindik asko falta da. Horren arira, zuk esan duzun bezala gizarteak ez badu emakume kirolariak eskaintzen, ez bada saltzen ez dute erreferenterik edukiko eta ikusgai edo fama gehiago duena hartuko dute erreferente. Momentu honetan, gizonetzkoen kirola gaineratik dago, beraz nik uste ume bateri emakumezko erreferenteari buruz galdetzean ez daki erantzuten ez dakalako inor ikusteko aukerarik.

-Horren arira, 108 ikasletik soilik 9k ezagutzen dute emakumeak diren saskibaloijokalariak, zein iritzi duzu eta zer egin genezake hau aldatzeko?

Nola ez datu hauek ez zaizkit batere gustatzen baina ez dugu gaur egungo gazteak kritikatu behar egoera aldatzeko soluzioren bat aplikatu baizik. Ikasleek ez dute ezagutzen orokorrean emakume saskibaloijokalariak ez direlako famatuak eta horrekin hasi beharko ginateke, orokorrean emakumeen kirola eskaintzen. Adibidez, pasaden astean nire taldeko bi jokalari etorri ziren ikasleek prestatutako galderak erantzutea eta ikasleengandik jasotako erantzuna ezin hobea izan zen, oso motibatuak zeuden. Gainera, hemen Gasteizen aukera paregabea daukagu bai Baskoina, bai Arazki taldeekin eta familiak eragina du haien seme alabei eskaintzen diotenarekin eta irakasten dizkieten baloreekin. Horregatik, interesa dagoela nabari da eskaintza falta da bakarrik eta aipatutako kasua nahiz eta txorakeri bat iruditu pixkanaka egoera aldatzera bideratuko gaitu.

-Zer egin genezake emakume kirolari gehiago ezagunak izateko?

+Nik uste lehenengo gauza guk emakume bezala ere saltzea edo bultzatzea, hots, gainontzekoei eskatu baino lehen guk bertan bultzatu behar dugu emakumeen kirola, interesa erakutsi behar dugu. Bestela oso zaila da gustatzen edo bultzatzen ez dugun zerbait saltzea.

-Saskibaloijokalaria izateaz gain baita irakaslea zara, ikasleak ikustean edo haiekin hitz egitean zure haurtzaroa islatua ikusten duzu? ala hobekuntzarik ikusten dituzu? zeintzuk dira hobekuntza horiek?

+Nire gelan esango nuke buruan soilik futbola dutela, pasada bat da nola denen izenak dakizkiten, non bizi diren... Egia da Baskonia eta Arizki gertu egonda baita saskibaloia ere gustuko dutela baina ez dauka zer ikusirik. Nesketan murgilduz, ez ditut hain motibatuak ikusten, "multiarte", dantza, marrazketa besteak beste dute presentzia gehiago eta tamalez ez dago mutilekin alderatuz pasio hura. Patioan, denbora librean, aipatutakoa ikus daiteke mutilak harrapaketa jolasetan edota futboleko ibiltzen dira eta neskek gehienbat ariekin edota hizketan. Horregatik, alderdi horretan nahiko antzeko ikusten dut eta hein batean nire haurtzaroa islatuta ikusten dut, baina egia da eskolaz kanpoko ekintzari erreferentzia eginez,

nire haurtzaroarekin alderatuz, neskek askoz kirola gehiago egiten dutelakoan nago eta horrek pozten nau.

-Amaitzeko, zein gomendio emango zenioke emakumea izateagatik kirolen bat egiteko zailtasunak dituen edo baztertuta sentitzen diren emakumeei?

+Lehenengo aholkua bakoitzak nahi duen kirola egitea da, edozein baina kirola egitea oso garrantzitsua dela uste baitut eta batez ere talde kirolak, izan ere, horrek ematen dituen baloreak ez dituzte kirol indibidualak ematen. Bigarren aholkua, nahi duzun kirola praktikatzeko da, beste edozeinen komentarioei kasurik egin gabe, izan ere, zugar harro eta seguru sentitzen bazara, komentario horiek pixkanaka desagertzen joango dira zugar eraginik ez duela egin ikusiko baitute. Inoiz ez zara denen gustukoa izango eta neska nahiz mutila izan, mespretxuzko komentario jasoko dituzu. Finean, komentario horiek egiten ditzuztenek dute benetako arazoa eta hauek dira hausnartu eta autoerregulazioa egin beharko luketenak.

7.ONDORIOAK

Ondorengo lerroetan bi ikerketen bidez lortutako emaitzen inguruko ondorioak plazaratuko dira. Ezer baino lehen, lan hau ikasketa prozesu bat izan dela niretzat bai arlo akademikoan baina baita pertsonalean ere azpimarratzea gustatuko litzaidake.

Lehenengo ikerketarekin hasita, lehenengo ondorioa, orokorrean mutilek neskek baino kirol gehiago egiten dutela izango litzateke, izan ere, eskolaz kanpo kirolaren bat praktikatzeko ez duten ikasleen kantitatea, nesketan nahiko altuagoa da. Beraz, soilik Gorputz Hezkuntzako saioak erabiltzen dituzte jarduera fisikoa egiteko eta eskolaren baitan, eskas gelditzen da edo zuzenean MOE-ren gomendioak ez betetzeak du eragin bezala; hurrengo hau da gomendatzen duena: Egunero 60 minutuko (edo gehiagoko) jarduerak burutzea, astean gutxienez hiru alditan (aerobikoa ahal bada), hezurak eta giharrak indartzeko. Gomendio horiek ez betetzeak ondorio ugari dakar; sedentarismoa, gaixotasun kardiobaskularrak zein neuromuskularrak izateko arriskua, tentsio arterial altua edota obesitatea eta gainpisua izateko arriskua besteak beste. Baita kontuan hartu beharra dago ezinbestekoa dela txikitatik bizi-ohitura osasuntsuei balioa ematea; izan ere, hauek eragin positiboa izango dute etorkizunean. Honegatik hain zuzen ere aldatu behar dugu nesken egoera kritiko hau, jarduera fisikoa egiteak eguneroko bizitzako askotariko jarduerak biltzen dituelako, eta, beraz, ezin konta ahala onura dakartzkio pertsonen osasunari eremu fisiologikotik, psikologikotik eta sozialetik.

Honek Gorputz Hezkuntzaren garrantzira bideratzen gaitu, esan bezala ikasle batzuk ez baitute eskolaz kanpo jarduera fisikorik egiten. Gorputz Hezkuntzako saioek neskei hainbat kirol eta jarduera fisiko probatzeko aukera ematen diete. Aukera desberdinak esperimendatzean, erakargarriak diren eta praktikatzen eroso sentitzen diren kirolak deskubritu dezakete, kirol horietan murgiltzeko aukera izanez. Gainera, saio hauen esker trebetasun berriak ikastean eta beren egoera fisikoa hobetzean, neskek beren buruarengan konfiantza gara dezakete, baita beren autoestimua hobetu ere. Horrek, eskolatik kanpoko kirolean parte hartzea eta izan dezaketen edozein oztopo edo zalantza gainditzea eragin dezake. Bestalde, bizimodu osasuntsua mantentzeko aktibo mantentzearen garrantziaz ikasten dute, eta horrek eskolatik kanpo kirola egiteko aukerak bilatzera bultzatzen ditu.

Gorputz Hezkuntzako saioak neska askorentzat jarduera fisikoa egitearen lehenengo pasua da, bertan ikasi eta garatzen dute gaitasun eta trebetasun motorrak; ikasgaia honen esker bilakatzen dira motorki konpetenteak. Baina, ikasleen garapen integrala sustatzea dugu helburutzat, hortaz alderdi kognitibo, sozial eta emozionalean duen eragina kontuan hartu behar da. Eskolan izandako esperientzia fisikoez egiten duen pertzepzioa eta interpretazioa funtsezkoak izango dira eskola ibilbidetik haratago jarduera fisikoetan inplikatzeko. Finean, Gorputz Hezkuntzako saioak gustatu baino, desafio bat bezala irudikatzen badute, ondoren ez dute aisialdi moduan oroipen hura berpiztu nahiko eta sentimendu hura ahalik eta gutxien sentitzen saiatuko dira.

Kirolen gustuekin jarraituz, mutilen artean futbolak jarraitzaile gehiena izateak ez du inor harritzen. Nesken erantzunak gehiago interesatzen zitzaizkidan eta gehiengoek dantza ala gimnasia aukeratu izanak hein batean harritu nau, baita futbolaren interes ezak ere. Futbola da espainia mailan presentzia gehien duen kirola, eta eskola askotan Gorputz Hezkuntza nahiz jolas garaian kirola hura praktikatzen da gehien, “denok dute gustuko” argudiatuz. Baina galdetegi honetan ikusi da mutilak direla kirola hau gustuko dutenak, hortaz ezin da genero baten gustuak denentzat orokortu. Hau aurreko ondorioarekin lotuta dago, neskak motibatu behar ditugula esan dut, baina ez badira gustatzen zaizkien egoera motorrak proposatzen ez dute disfrutatuko eta horren harira, ez dira motibatuak sentituko. Askok ez dute ez dantza ezta gimnasia ere kirola bezala aintzakotzat hartzen, baina kirola araututa dagoen jarduera fisikoa da, eta bi kirol hauek energia gastua sortzen dute eta finean, gure helburua hezkuntza integrala da, haien ongizate fisiko, mental, kognitibo eta soziala da, eta bi kirol hauen bitartez hau gauzatzen bada martxan jarri beharko litzateke bitan pentsatu gabe.

Bestalde, nesken kirol-erreferenteen gabezia nabarmena da, idolorik ez dutela ikus daiteke. Egia esan, nire ustetan erreferenterik gabe zailagoa da kirol horretan guztiz murgiltzea. Kirol erreferenteen presentzia inspirazio- eta motibazio-iturri izan daiteke pertsona askorentzat, bereziki kirola egiten dutenentzat edo kirol munduan interesa dutenentzat. Idolorik ez izateak nesKentzat kirolarekiko motibazioa eta gogoia gutxitzea ekar dezake. Horrez gain, erreferenteen presentziak eragin positiboa izan dezake pertsonen autoestimuan, bereziki haiekin identifikatzen direnean generoari, lorpenei edo kirol-trebetasunei dagokienez. Idolorik ez izateak eragina izan dezake ikasleen autoestimuan, kirolaren munduan irudikapen eta errekonozimendu falta hauteman baitezakete.

Erreferenteen gaiarekin jarraituz; tamalez, umek ez dute emakumeak erreferente bezala kirol mailan, ez mutilek ezta neskek ere. Galdera erantzutean, batzuek barre eta dena egin zuten, ez zuten emakumeak erreferenteak bezala irudikatzen, hau pentsatzeak bakarrik grazia egiten zien. Emakumezko kirolari erreferenterik ez izateak neskek eredu gisa mirets eta jarrai ditzaketen figurak mugatzen ditu. Jarraitu beharreko ereduaren presentzia funtsezkoa da neskak kirolean parte hartzera bultzatzeko eta haiek ere esparru horretan arrakasta lor dezaketela erakusteko. Jarraitu beharreko eredurik gabe, litekeena da neskek zailtasunak izatea beren gaitasunetan sinesteko eta kirola haienentzat aukera bideragarri gisa hartzeko. Argi eta garbi dago honi soluzio bat bilatu behar zaiola, emakume kirolarien presentziaren beharra daukagu, umeei emakumeak zer egiteko gai diren erakutsi behar zaie; honela, mutilak baina batez ere neskak laguntzeko gai izango gara, haien ahalmenean sinistuko dute eta berdintasunera bideratzeko aurrerapauso oso handia izango da. Finean, ispiluan begiratzeko inor ez badute, motibazio hura aurkitzeko zailtasun asko edukiko dituzte, baliteke profesionala izateko probabilitaterik ez dutela sinistea eragitea.

Bigarren ikerketaren esker, Intza Lizarazuri egindako elkarrizketaren esker, emakume profesional baten errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izan dut. Espainian saskibaloia jokalaria baten egoera barnetik ikustea eragin du eta 20 minutuz hitz egin ondoren hainbat ondorio atera ditzaket.

Hasteko, berdintasunera bideratzen ari garela ondorioztatu daiteke, baina oraindik ere asko falta da bi generoak berdinean egoteko. Soldata da gehien azpimarratu duen alderdia, izan ere, gizonezkoek askoz gehiago kobratzen dute eta aldaketa handia eman beharko litzateke bi generoek gutxienez antzeko kobratzeko. Soldatarekin jarraituz, orokorrean emakumeek hain gutxi kobratzen dutenez, Intzaren kasua emakume askotan ematen da, ezin dute soilik kirolak emandako diruarekin bizi, beste lan bat bilatu behar dute eta horrek

kirol horrei gustatuko litzaieken denbora eskaini ahal ez izatea dakar. Hobetu beharko litzatekeen beste bi alderdi instalazioak eta baldintzak izango lirateke, gizonezkoei eskaintzen zaizkienak asko laguntzen dute ondorengo etekinean, laguntza gehiago dute, ordutegi hobeak, izan ere, emakumeek instalazioak gizonezkoek amaitu ostean dute eskuragarri, entrenatzeko ordutegi oso kaxkarra izanez. Esan bezala, honek eragin zuzena du errendimenduan, hortaz bi generoen errendimendua antzerakoa izateko ezinbestekoa da baita eskaintzen zaien laguntza ere antzerakoa izatea, bestela oso zaila izango da, berdintasunik eza nabarmentzen da berriro ere.

Nahiz eta bere nerabezaroan kirol-erreferenterik ez eduki, profesionala izatea lortu du; hau mezu positiboa izan behar da gaurko nesKentzat, nahiz eta emakume gutxi izan telebistan ala aldizkarietan, profesionala izatea posible da, ezagunak ez diren emakume pila bat daude mailan onenean. Baliteke noizbait neska askoren ispilua bilakatzea, baliteke haien esker neska asko motibatuak sentitzea, baliteke haiek noizbait kirolari famatuenak izatea... Erreferenterik ez izateak ez du pertsona batek kirol-arloan duen potentziala eta lorpenak mugatu behar. Kirolari arrakastatsuen adibide asko daude, helburu handiak lortu dituztenak beren kirol-diziplinan idolorik izan gabe. Pertsona batek bere kirol-diziplinarekiko berezko grina badu, eta gogor lan egiteko konpromisoa hartzen badu, errendimendu-maila handiak lor ditzake, idolo espezifikoaren mende egon gabe. Halere, nahiz eta kirol erreferente famaturik ez izan, entrenatzaile, taldekide edo senide batenbat jarraitu beharreko ereduak izan daitezke eta haien pausuak jarraituz oso urruti iritsi.

Atera dezakegun beste ondorio bat, emakumeen kirolaren arazoa interesa falta dela esateak zentzurik ez duela da; falta dena ez da interesa, eskaintza da falta dena. Aldialde eskolako ikasle horiek ez balute hitzaldi horretan parte hartu haiengan ez litzateke interesa piztuko, baina behin eskaintza eman dela interesa dute, baliteke haien hurrengo partiduan ikusle izatea. Hau orokortu daiteke, gizarteari ez bazaio emakumeen kirola eskaintzen gizarteak ez du interesa edukiko. Emakumeen kirola eskaini den bakoitzean gizarteak erantzun du, marko teorikoan aipatutako Camp Nou estadioan eman zen kasua honen adibide garbia da.

Bestalde, emakumeek, gainontzekoei emakumeen kirola jarraitzea eskatu baino lehen, hasteko haiek bertan bultzatu behar dutela esango nuke. Emakumeek funtsezko zeregina dute emakumeen kirolaren garrantzia sustatzeko eta nabarmentzeko, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Egia da, emakume batzuk interesa erakutsi gabe gainerakoei interesa erakustea exijitzen dietela eta honela efekturik edukitzea oso zaila da. Emakumeen

kirola edo beste edozein produktu saltzerako orduan, produktu horretan sinistu beharra dago eta interesa erakutsi, ondoren zure pasioa gainerakoei helarazteko.

Amaitzeko, eskolaz kanpo aitzinean baino jarduera fisiko gehiago egiten dutela dio baina jolas garaian eta orokorrean eskolan motibazio falta azpimarratzen du. Lehenago aipatu dudana datorkit burura, neskak motibatu behar ditugu, argi dago irakasleen laguntzarik gabe motibazio hura aurkitzeko zailtasunak dituztela, hortaz gure erantzukizuna da, gure esku dago haiengan interesa piztea. Honekin ez dut eskolan haien denbora librean jarduera fisikoa egitea derrigortu behar ditugula esan nahi, bakoitzak gustu ezberdinak ditu, baina errealitate hau aldatzeko zerbait egin beharko litzatekela derrigortzat hartzen dut.

Horrenbestez, emaitza eta ondorio guztiak bateraturik, guztizko berdintasuna lortzeko oraindik lana egin behar dela ikus daiteke baita aldaketa batzuen bitartez emakumezkoen kirolak oraindik eta hobekuntza nabarmenagoa jasango lukeela ere. Hasteko, eskolak izan dezaken eraginaz ohartu gara; Gorputz Hezkuntzako saioak neskak motibatzen erabili behar direla ondorioztatu daiteke, bertan bizitako esperientzia positiboak eskolaz kanpo berpizteko. Baita, neskek gehien gustuko dituzten kirolei presentzia eman behar diegula argi dago, bai Gorputz Hezkuntzako saioetan baita jolas orduan ere. Emakume kirolari erreferenteen beharra nire ustez atera dudana ondorio garrantzitsuena eta argiena da, umeei erreferenteak behar dituzte, ez bakarrik motibatzen baita haien posibilitatean sinisteko ere, jarraitzeko pausu zehatzak izan dezaten. Alderdi honetan eskolak badu zer egina, gizarteak ez baditu nabarmenak, hezkuntzak nabarmendu beharko ditu ikasleengan interesa pizteko. Interesa badagoela ikusi dugu, eskaintza falta da, eta hau gure betebeharra da. Ikasle gehienak ez dira desberdintasun hauez jabetzen, normaltzat hartzen dute, famatuak gizonezkoak izatea haientzat normala da. Guk, irakasle bezala egoera hau aldatu behar dugu, izan ere, ez badira desparekotasun horretaz jabetzen, nola aldatuko dute haien portaera? Askok nahigabe jokaera sexista dute kirol munduan, gizarteak emakumezkoen kirola bigarren mailan kokatzen duenez haientzat bigarren mailan dago, beraz gure esku dago. Ondorioekin amaitzeko, marko teorikoan aipatutako estereotipoen erreferentzia egin beharra diegu. Tamalez, genero-estereotipo batzuk oraindik ere betetzen direla ondorioztatu daiteke, maila baxuagoan noski, baina oraindik presente daude. Emaitzetan ikusi dugun bezala, mutilak jarduera fisiko gehiago egiten dute, estereotipoak baieztatuz, baina honen aldaketa irakasleon eskuetan dagoela ondorioztatu daiteke ere, beraz lanari ekin behar diegu.

8.HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lan honi amaiera emateko, ezinbestekoa da ikerketa honetan zehar aurkitu diren beharrak identifikatzea eta horiek hobetzeko proposamenak egitea. Helburutzat, Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala, egungo neskei aukera gehiago edo laguntza gehiago eskaintzea izango litzateke, ondoren emakumezkoen kirola ikusgai izateko, gizonezkoenaren antzera izan dadin eta behingoz bi generoen arteko berdintasuna lortzeko. Baina esan bezala, ikasleetan zentratuko naiz hauek baitira muina, finean, etorkizuna eta hauen errealitatea gizartean islatuko da.

Irakasleon helburua ikasleek edozein sexutakoak direla ere, autosatisfakzio-maila ona garatzea, autoestimua fisiko egokia izatea eta Gorputz Hezkuntza positiboki baloratzea da, horretarako, irakasleak ikasleentzat eredu gara eta funtzio hori behar bezala betetzeko, lehenik irakasleak bertan prestakuntzak jaso beharko genituzke aipatutako genero-ikuskeraren tradizionalarik aurre egiteko. Gaur egungo gizarte kapitalistan, eskolak, estatu patriarkalaren arauak jarraitzen ditu, modu esplizitu zein inplizitu batean eta horrek ez du uzten haurren norberaren garapena eta askatasuna zaintzea. Molde oso estuetan fabrikatuta gaude non norbanakoaren gorputza merkatuan saltzen diren ereduera hurbiltzeko sortuta dauden eta binarismo sinple eta zaharkituaren barruan sinplifikatuta dauden. Beraz, egoera honi aurre egiteko, lehenengo pausua Gorputz Hezkuntzako irakasleak eman beharko genuke gaia honi buruzko prestakuntzak jasotzen.

Esan bezala, irakaslearen rola funtsezkoa da, nolabait ikasle orok kanpoan jardueraren fisikoa egitea bultzatu behar dituen saioak motibagarriak eta dibertigarriak izanez. Ikuspegi holistikoaren beharra ezinbestekotzat hartzen dut, jardueraren fisikoa esperientzia positiboan bihurtu behar da, irakasleak jardueraren fisikorekiko duen jarrera ahalik eta atseginena izan dadin, baina Gorputz Hezkuntzak jardueraren fisikoa egiterakoan beharrezkoan den ezagutza teoriko-praktikoa ezin du alde batera utzi, honela irakasleak jardueraren fisikorekin eta osasunaren inguruan erabaki egokiak hartzen ikasiko du. Bestalde, jardueraren fisikoa eta osasunaren inguruan sor daitezkeen kontraesanak eta zalantzen aurrean, irakaslearen pentsamendu kritikoa sustatzen duten esperientziak bilatu behar dira ere. Baina ikusi da nesken egoera nahiko kritikoa dela, hortaz honi aurre egin behar zaio, irakasleak bereziki neskek motibatu behar dituzte, tresna ezberdinak erabili behar dituzte hau lortzeko; hasteko, jokaera matxista alde batera utzita eta ikasle guztiak berdintzat tratatuz.

Bigarren hobekuntza proposamena aurretik aipatutakoarekin du lotura; ikasle asko ez dira bi generoen arteko ezberdintasunaz ohartzen, beraz ikusgai jartzeko, eskolan kirol

aldizkariak edota albisteak irakurtzea proposatuko nuke. Honela, emakume kirolarien presentzia eza nabarmenduko da, eta errealitatea ezagutzeko aukera edukiko dute. Horren esker, egoera hau kritikatzeko gai izango dira eta egoerari aurre egiteko soluzioak proposatzeko edo orokorrean honi aurre egiteko motibazioa eta arrazoiak edukiko dituzte.

Horrez gain, baita emakume kirolariak eraman ditzakegu ikastolara ere. Hitzaldiak ematera joan daitezke kirolari hauek, umeez lehenago galderak prestatu ditzakete edota kirolari hauei buruzko lanketa egin, informazioa bilatuz. Honela, erreferenteak edukitzeko gai izango dira, irratan nahiz telebistan ikusten ez diren emakumeak haiekin egongo dira, gertutasunez hitz egin dezakete haiekin. Gainera, haiei galderak eginez, kirolariak gomendioak eman dezakete haien prozesurako oso baliagarria izango dena. Finean, kirolen batean murgiltzea lagundu dezake honek kirolariak haien pasioa ikasleei transmititu dezaketelako.

Irudi batek mila hitzek baino balio gehiago daukala esan ohi da; aurretik aipatutakoak eragin gehiago izateko, ikasleak emakumeen kirola zuzenean ikustea aukera paregabea izan daiteke. Urtean behin honelako irteerak egin beharko lirateke, izan ere, umeei asko gustatuko litzateke eta emakumeen kirola zuzenean bizitzeak inpaktu oso positiboa eragin dezake umeen artean. Ez soilik neskontzat, baita mutilentzat ere; orokorrean ez denez ikusten, eskaintza falta dagoelako, askok ez dira profesional horien ahalmenaz jabetzen eta ikusten duten unean haien iritzia guztiz aldatzen da. Ez denez eskaintzen, maila baxua dutela ziurtzat jotzen da. Beraz, edozein kirol-ekitaldi edo txapelketa zuzenean ikustea proposatuko nuke, une bakoitzean kirolez aldatzea interesgarria izango litzateke, denen gustua asetzeko, eta erreferente ezberdin gehiago sortzeko ikasleengan.

Egoera hobetuko lukeen beste proposamen bat irakaslearen programazio alderdiarekin edukiko luke lotura, zehazki irakasleak erabiltzen duen eredu metodologikoarekin. Dantza eta gimnasiak presentzia gehiago eduki dezan Gorputz Hezkuntzan, adierazpen eta arte-ekintzak dominioa erabili beharko litzateke egoera motorrak proposatzerako orduan. Egia da domeinu anitzak proposatu behar direla eta nik ez dut kontrakoa esaten, soilik domeinu honek ez duela eduki beharko lukeen garrantzia eta beste edozein domeinu bezala landu beharko litzakela. Dantza eta gimnasiari buruzko unitate didaktikoak proposatzea oso interesgarria izango litzateke, alde batetik neskek motibatuago egoteko eta esperientzia positiboak bizitzeko eta beste aldetik, mutilen artean bi kirol hauek errespetatzeko. Honela, estereotipo batzuei aurre egingo genieke, kirolak eta trebetasunak genero bakoitzari esleitzearekin amaituz.

Beste proposamen bat jolas garaietan monitore batek dinamizatzaile lana hartzea izango litzateke. Horretarako IKP-aren barnean derrigorrez bilduta egon beharko litzatekeen plan bat aurrera eraman beharko litzateke. IKP proiektua, ikastetxeetan administratiboki jasotzen duten dokumentua da, zeinak jarduera, proiektu eta ekintza ezberdinak biltzen dituen; honek, ikasleak bazterketarik gabe, egunerokotasunean, jarduera fisikoa egitea baimenduko die, eskola orduetan zein hauetatik kanpo, eta ohitura osasuntsuak barneratzen lagunduko die. Nik bizitza aktiboko plana proposatzen dut; horretarako, eskolaz kanpoko monitore bat kontratatu beharko litzateke eta astean bitan edo hirutan jolas garaiak dinamizatzen arituko zen. Jolas garaietan, emaitzetan ikus dezakegun bezala, neskak dira jarduera fisikoa egiteko bultzada edo motibazioa behar dutenak, hortaz haien gustuetan oinarritzea eraginkorra izango litzatekeela uste dut. Beraz, monitore honen lana, dantza eta gimnasia lantzea izango litzateke; dudarik gabe baita beste kirolak landu ahalko litzateke landu ere, baina neskak motibatzeke asmoz, nire aburuz bi hauek izan beharko lirateke proiektuaren muina.

9.ERREFERENTZIAK

Arenas, G. (2006). *Triunfantes perdedoras*. GRAÓ.

Arenas, D., Conti, J. V., & Mas, A. M. (2022). *Estereotipos de género y tratamiento diferenciado entre chicos y chicas en la asignatura de educación física: una revisión narrativa*. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (43), 342-351.

Barberá, E. (1998). *Psicología del género*. I. M. Benlloch (Ed.). Barcelona: Ariel.

Bem, S. L. (1974). *The measurement of psychological androgyny*. *Journal of consulting and clinical psychology*, 42(2), 155.

Biskup, C., & Pfister, G. (1999). *I Would Like to be Like Her/Him: Are Athletes Role-Models for Boys and Girls?* *European Physical Education Review*, 5(3), 199–218

Ramos Escandón, C. (1997). *El concepto de género y su utilidad para el análisis histórico*.

Boletín Oficial del Estado. (2015). *Resolución de 23 de noviembre de 2015, de la Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de noviembre de 2015, por el que se determina el procedimiento para el nombramiento de los miembros de las Comisiones de Coordinación del Seguimiento del Sistema Nacional de Garantía Juvenil*. *Diario Oficial de la Federación*, núm. 123, 456-789.

[https://www.boe.es/eli/es/res/2015/11/23/\(4\)/dof/spa/pdf](https://www.boe.es/eli/es/res/2015/11/23/(4)/dof/spa/pdf)

Boletín Oficial del Estado. (2020). *Real Decreto-Ley 27/2020, de 4 de agosto, de medidas financieras, de carácter extraordinario y urgente, aplicables a las entidades locales*. *Boletín Oficial del Estado*, A-2020-9765.

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/08/15/pdfs/BOE-A-2020-9765.pdf>

Bonafé, M. G. (2001). *El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres*. *Apunts. Educación física y deportes*, 2(64), 63-68.

Comité Olímpico Internacional. (d.g.). *Olympic Games Rio 2016*.

<https://olympics.com/en/olympic-games/rio-2016>

Comité Olímpico Internacional. (d.g.). *Olympic Games Tokyo 2020*.

<https://olympics.com/en/olympic-games/tokyo-2020>

Consejo de Europa (2019). *Recomendación CM/Rec (2019)1 del Comité de Ministros a los Estados miembros para prevenir y combatir el sexismo*.

https://cendocps.carm.es/documentacion/2019_Recomendacion_Consejo_de_Europa_Sexismo.pdf

Dovidio, J. F., Evans, N. y Tyler, R. B. (1986). *Racial stereotypes: the contents of their cognitive representation*. *Journal of Experimental Social Psychology*, 22,22-37.

Dosil, J. (2004). *Psicología de la actividad física y del deporte*. Madrid.

Dosal Ulloa, R., Mejía Ciro, M. P., & Capdevila Ortis, L. (2017). *Deporte y equidad de género*. *Economía Unam*, 14(40), 121-133.

Fernandez, Z. F., Bermudez, B. F. C., Cisneros, R. M., & Avelar, K. A. O. (2022). *Violencia de género en el deporte. Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (43), 808-817.

Fernández García, E. (2005). *EF y género: la transmisión de estereotipos de género en la enseñanza de la educación física*. En *Actas de Congreso Internacional de Educación Física*. Valladolid, España: Universidad de Valladolid

Flores, A., Espejel, A., y Martell, L. M. (2016). *Discriminación de género en el aula universitaria y en sus contornos*. *Ra Ximhai*, 12 (1), 49–67.

FITPro Worl Players' Unión. (2017). *Fifpro Global Employment Report: Working conditions in professional women's football*.

García-Peña, A. L. (2016). *De la historia de las mujeres a la historia del género*. Contribuciones desde Coatepec, (31).

García, A. (2006). *Evolución histórica y social de la presencia de la mujer en la práctica física y el deporte*. Lect. Educ. Física, 99, 1-8.

García, M. (2006). *Postmodernidad y Deporte: entre la individualización y la masificación*. Encuesta sobre hábitos deportivos de los españoles (p. 308). Madrid: CSD - CIS.

Gómez-Colell, E., Medina-Bravo, P., & Xavier, R. (2017). *La presencia invisible de la mujer deportista en la prensa deportiva española. Análisis de las portadas de "Marca", "As", "Mundo Deportivo" y "Sport"(2010-2015)*. Estudios sobre el mensaje periodístico, 23(2), 793.

González, M. (2005). *¿Tienen sexo los contenidos de la Educación Física escolar? Transmisión de estereotipos de sexo a través de los libros de texto en la etapa de Secundaria*. Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte, 5 (77-88).

Hernández, N. S., Martos-García, D., & Navajas, A. L. (2017). *Las mujeres en los materiales curriculares: el caso de dos libros de texto de Educación Física*. Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación, (32), 140-145.

Instituto de la Mujer. (2006). *Actitudes y Prácticas Deportivas de las Mujeres en España (1990-2005)*. Estudios (92), 258. Madrid: Instituto de la Mujer (MTAS, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales).

Karl Rasmussen. (2023). *ESPN Reveals Record-Setting Ratings for Women's Final Four*. Sports Illustrated.

Lamas, M. (1996). *La perspectiva de género*. Revista de Educación y Cultura de la sección, 47, 216-229.

León Hernández, I., Gamito Gomez, R. & Etxebarria Perez de Nanclares, O. (2022). *Experiencias encarnadas Diálogos sobre las memorias de la infancia y la actividad física escolar*. Tándem Didáctica de la Educación Física, 78, 7-12.

Lleixà, T. (2003). *Educación Física hoy. Realidad y cambio curricular*. Barcelona: ICE-Horsori.

Lleixà Arribas, T., Soler i Prat, S., & Serra, P. (2019). *Perspectiva de género en la formación de maestras y maestros de Educación Física*. Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación, 2020, num. 37, p. 634-642.

López Sáez, M. y Morales, J. F. (1995). *Estereotipos de género e identidad de género*. En J. C. Sánchez y A. M. Ullán (comp.), *Procesos psicológicos básicos y grupales* (387-400). Salamanca: Eudema.

Macías, M. V. y Moya, M.C. (2002). *Estereotipos y Deporte Femenino. La influencia del estereotipo en la práctica deportiva de niñas y adolescentes*. Madrid: Consejo Superior de Deportes.

Makazaga, A.; Llorente, B. y Kortabitarte, B. (2001). *La coeducación en el deporte en edad escolar*. En *Actas del Congreso Mujer y Deporte*. Bilbao, España

Marcillo, C. C. (2019). *¿Qué es el currículum oculto?*. *Revista Científica Retos de la Ciencia*, 3(1), 58-66.

Marín Gil, M. (2014). *Currículum oculto visual y estereotipos de género en Educación Infantil*. Facultad de Ciencias Humanas y Sociales: Universidad pública de Navarra.

Martín, A. (2022). *¿Cuál es el salario mínimo de un futbolista en Primera y en Segunda División en España?* AS.com.
<https://as.com/futbol/cual-es-el-salario-minimo-de-un-futbolista-en-primera-y-en-segunda-division-en-espana-n/>

Ministerio de Sanidad de España. (d.g.). *Qué es la actividad física. Estilos de vida saludable*. 2023ko maiatzaren 15ean kontsultatuta.

Molina Soria, H. F., Rojas Torres, A., & Orihuela Gutierrez, M. F. (2021). *El efecto Pigmalión en el ámbito educativo*.

Monasterio, M., González, S. y García, A. (2011). *La Coeducación en la Escuela del Siglo XXI*. Madrid: Catarata.

Nuñez, D. (2019) *¿Cómo un deportista llega a convertirse en ídolo?* Diario Concepción.

ONU MUJERES. (2023). *Incorporación de la perspectiva de género*.
<https://www.unwomen.org/es/how-we-work/un-system-coordination/gender-mainstreaming#:~:text=Es%20una%20estrategia%20destinada%20a,fin%20de%20que%20las%20mujeres>

Ordoñez, A. (2011). *Género y deporte en la sociedad actual*. *Polémika*, 7 (12), 106–114.

Organización Mundial de la Salud. (2010). *Recomendaciones mundiales sobre actividad física para la salud*.
<https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/44441/97892?sequence=1>

OSAGI (2001). *Gender Mainstreaming: Strategy for Promoting Gender Equality*. Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo 2015 “Informe sobre Desarrollo Humano 2015”.

Pedregosa, P. R. (2018). *Deportes e ídolos deportivos. Un estudio de caso con niños cordobeses de primaria*. *Lecturas: Educación Física y Deportes*, 23(246), 12-26.

Perezson, V. (2018). *La Educación Física es una disciplina pedagógica que contribuye a la formación integral de los estudiantes*. *El Arcón de Clio*. <https://revista.elarcondeclio.com.ar/valeria-perezson-la-educacion-fisica-es-unadisciplina-pedagogica-que-contribuye-a-la-formacion-integral-de-los-estudiantes/#:~:text=en%20la%20escuela%3F-.La%20Educaci%C3%B3n%20F%C3%ADsica%20es%20una%20disciplina%20ped>

RAE. (2021). *Diccionario de la lengua española*. ASALE.

Rivas Alberto. (2022). *El Barça-Madrid, récord mundial de público en partido femenino*. RTVE.es. <https://www.rtve.es/deportes/20220330/barca-madrid-camp-nou-bate-record-mundial-publico-partido-femenino/2325800.shtml>

Rodríguez, L. R., & Gómez, E. M. (2018). *Propuesta de igualdad de género en Educación Física: adaptaciones de las normas en fútbol*. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (33), 293-297.

Ruble, D. N. y Martin, C. L. (1998) *Gender development*. En W. Damon y N. Eisenberg (Eds.). *Handbook of child psychology*, Vol. III. Social, emotional and personality development New York: Wiley. Pp. 933-1016.

Ruiz Rabadán, S., & Moya-Mata, I. (2020). *Las deportistas olímpicas en los libros de texto de educación física: ¿presencia o ausencia de referentes en nuestro alumnado?*. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 2020, num. 38, p. 229-234.

Sáez, A. (2022). *¿Cuál es el salario mínimo de un futbolista en Primera y Segunda división en España?* *Estadio Deportivo*. <https://www.estadiodeportivo.com/futbol/primera-division/cual-salario-minimo-futbolista-primera-segunda-division-espana-20220725-402407.html>

Sagarzazu Olaizola, I., & Lallana Del Rio, I. (2012). *La influencia de los estereotipos de género tradicionales en la participación deportiva de las mujeres y su reproducción en los*

medios de comunicación. In Libro de Actas del I Congreso Internacional de Comunicación y Género.(pp. 2032-2047). Sevilla: Facultad de Comunicación. Universidad de Sevilla.

Sicilia, A., Moreno, J.A. y otros (2008). *Coeducación y climas de aprendizaje en E. Física*. Aportaciones de la teoría de metas de logro, en *International Journal of Sport Science* .Vol. IV,º 11, pp 42-64.

Sport.es. (2022). *¿Cuál es el salario mínimo de un futbolista de primera división?*
<https://www.sport.es/es/noticias/laliga/salario-minimo-futbolista-primera-division-75339331>

Statista. (d.g.). *Number of women participants in Olympic Summer Games*.
<https://www.statista.com/statistics/531154/number-of-women-participants-in-olympic-summer-games/>

Teijeiro, D. R., Patiño, M. J. M., & Padorno, C. M. (2005). *Identidad y estereotipos de la mujer en el deporte: una aproximación a la evolución histórica*. *Revista de investigación en educación*, 2, 109-126.

Torrijos, C. (2023). *El salario mínimo de los futbolistas de Primera y Segunda División A, sin amaños*. *Sueldos Públicos*.
<https://sueldospublicos.estrelladigital.es/texto-diario/mostrar/554504/salario-minimo-futbolistas-primera-segunda-division>

UNESCO. (2019). *Educación física para una vida más prolongada, saludable, satisfactoria y productiva*.
<https://es.unesco.org/news/educacion-fisica-vida-masprolongada-saludable-satisfactoria-y-productiva>

Vázquez, J. (1995). *La niña y el deporte: la motivación para el deporte y los valores de la niña*. *Actas del Congreso Científico Olímpico*. Málaga: Instituto Andaluz del Deporte. Junta de Andalucía.

Vega, P., Pérez-González, B., Fernández-Luna, Á., y Burillo, P. (2019). *Diversidad de género en las juntas directivas de federaciones deportivas: resultados económicos y operacionales*. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 137, 115–128.

Velandia-Morales, A., & Rincón, J. C. (2014). *Estereotipos y roles de género utilizados en la publicidad transmitida a través de la televisión*. *Universitas Psychologica*, 13 (2), 517-527.

WSSF (2010). *Young Women and Girls Sport and Physical Activity*, London.

Zapico Robles, B., & Tuero Del Prado, C. E. (2014). *Evolución histórica y educativa del deporte femenino. Una forma de exclusión social y cultural. Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia.*

Zipprich, C. (2001). *The Role of Sports and Games in the Self-Image of Girls and Boys.* Institut für Sportwissenschaft, Universität Hannover, Germany. Documento en línea

8.ERANSKINAK

eranskina 1:

Lehenengo ikerketaren galdera zehatzak:

- Kirolen bat praktikatzen duzu? Zein kirola?
- Zein kirola da gehien gustuko duzuna?
- Nor da zure erreferentea kirol munduan?
- Eta emakumerik al duzu erreferente bezala?
- Saskibaloj jokalariren bat ezagutzen al duzu? eta baita emakumea dena ere?

eranskina 2:

Bigarren ikerketaren galdera zehatzak:

- Kirol munduan berdintasuna lortu dela esango zenuke? Zer falta da oraindik?
- Kirolaria bezala baloratua sentitzen zara? gizonezkoekin alderatuz?
- Emakumea izateagatik gaur egun kirol munduan baztertuta sentitzen zara?
- Edozein kirola egiteko libre sentitu zara?
- Nor zen zuen idoloa nerabezaroan?
- Ikasleei egindako galdetegian, ondorioztatu daiteke ez daudela edo ez dituztela emakume kirolariak erreferente bezala, zein iritzi duzu honi buruz?
Zer egin genezake hau aldatzeko?
- Horren arira, 108 ikasletik soilik 9k ezagutzen dute emakumeak diren saskibaloj jokalaria, zein iritzi duzu eta zer egin genezake hau aldatzeko?

- Zer egin genezake emakume kirolari gehiago ezagunak izateko?
- Saskibaloj jokalaria izateaz gain baita irakaslea zara, ikasleak ikustean edo haiekin hitz egitean zure haurtzaroa islatua ikusten duzu? ala hobekuntzarik ikusten dituzu? zeintzuk dira hobekuntza horiek?
- Amaitzeko, zein gomendio emango zenioke emakumea izateagatik kirolen bat egiteko zailtasunak dituen edo baztertuta sentitzen diren emakumeei?